

NPB-AREN ERREFORMA: ORDAINKETA BAKARRA

PRESTAKUNTZAKO ESKULIBURUA

EUSKADI 2005-2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE
AGRICULTURA Y PESCA



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia
Departamento de Agricultura Nekazaritza Saila



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nekazaritza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de
Agricultura



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo del Medio Rural

AURKIBIDEA

1. NPBaren erreforma 2005-2013	3
1.1. Erreformaren helburuak eta mekanismoak	3
1.2. 1782/2003 Araudi horizontala eta garapenerako araudi berriak.....	4
1.3. Definizio nagusiak (alfabeto-ordenan)	5
1.4. NPBaren erreforman sartutako laguntza-erregimenak. Ordainketa bakarra eta bestelako laguntza-erregimenak	9
1.4.1. Ordainketa bakarreko erregimena	9
1.4.2. NPBaren erreforman sartutako beste hainbat laguntza-erregimen.....	10
1.5. Kudeaketa eta kontroleko sistema integratua	11
1.6. Laguntzako zenbateko gehigarria, modulazioa eta baldintzak, diziplina finantzarioa, ustiategien aholkularitza-sistema, nekazaritzako jarduerak, produkzioaren kalitatea eta landa-garapenerako neurriak.....	12
1.6.1. Baldintzazkotasuna.....	12
1.6.2. Modulazioa eta laguntzaren zenbateko gehigarria.....	13
1.6.3. Diziplina finantzarioa.....	14
1.6.4. Ustiategien aholkularitza-sistema	14
1.6.5. Nekazaritzako jarduerak eta produkzioaren kalitatea (69. artikulua)	14
1.6.6. Landa-garapenerako neurriak	14
2. Ordainketa bakarra	15
2.1. Ordainketa bakarraren erregimena ezartzea	15
2.2. Ordainketa bakarreko eskubideen onuradunak	16
2.3. Ordainketa bakarreko eskubideak	22
2.3.1. Erreferentzia-epea	22
2.3.2. Erreferentzia-zenbatekoa	23
2.3.3. Azalera zehaztua edo erreferentzia-azalera	24
2.3.4. Eskubideen kopurua eta motak	25
2.3.5. Eskubideen balioa	25
2.3.6. Erreferentzia-zenbatekoa kalkulatzeko	26
2.3.7. Eskubideak aktibatzea.....	31
2.3.8. Eskubideak erabiltzea.....	32
2.3.9. Eskubide berezien baldintzak.....	33
2.4. Ordainketa bakarreko eskaera	35
2.4.1. Laguntza-eskubideak ordaindu eta erabiltzea.....	35
2.4.2. Hektarea onargarriak	35
2.4.3. Ordainketa bakarreko eskaerak egiteko kalkulaturako zenbatekoa.....	37
2.5. Ordainketa bakarreko eskubideak lortu, galdu, transmititu eta aldatzea	38
2.5.1. Erreserba nazionala.....	38
2.5.2. Erreserba nazionala ezartzea.....	38
2.5.3. Ordainketa bakarreko eskubideak transmititzea	39

3. Azterketa sektoriala, eskubideen kalkulua, ordainketa bakarrerako kalkulu-oinarriak eta ordainketa bakarra osatzeko laguntzak. Adibideak	41
3.1. Belarki-laborantzak, olibadia, bazka-azalera eta lehortutako bazka	41
Belarki-laboreen adibidea	44
Olibadiaren adibidea	47
3.2. Abeltzaintza	49
Behi ume-hazlearen adibidea	52
Ardi- eta ahuntz-aziendaren adibidea	55
3.3. Esne-sektorea	58
Esne-sektorearen adibidea	60
Belarki-laboreen eta aziendaren ordainketa bakarreko adibide mistoa	62

1. NPB-AREN ERREFORMA 2005-2013

1.1. ERREFORMAREN HELBURUAK ETA MEKANISMOAK

Nekazaritzako Politika Bateratuaren bitarteko erreforma, Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 zenbakidun Araudia (EE) onartu zenean hasi zen. Helburua: NPBa, Europar Batasunaren aurrekontuetarako exijitutakora egokitzea eta Merkataritzaren Mundu Erakundearen negoziazioetan alde askoren akordioa erraztea.

NPBaren Erreformaren helburuen artean honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Merkatura babesteko neurriak sinplifikatzea.
- Ekoizpen-askatasuna, merkatu askearen bila.
- Finantza-diziplinarako mekanismoak ezartzea, merkatuari laguntzeko eta zuzeneko laguntzetarako egon diren gastuak mugatzeko.
- Ingurumena babestu eta hobetzea.

Aipatutako helburuak lortzeko, erreforma berriak Europar Batasunaren Nekazaritza Politikarako hainbat mekanismo berri ditu:

- Laguntza banantzea.
- Ustiatagirako ordainketa bakarra.
- Ordaintze-eskubidea ezartzea.
- Baldintzazkotasuna.
- Modulazioa.
- Nekazaritza-garapenerako araudi berria.

1.2. 1782/2003 ARAUDI HORIZONTALA ETA BATZORDEAK EMANDAKO GARAPENERAKO ARAUDI BERRIAK.

2003ko irailaren 29ko Kontseiluaren 1782/2003 Araudiak (EEEE L270, 2003/10/21ekoa) honako elementu hauek finkatzen ditu:

- Europar Batasunaren Nekazaritza Politikaren errentari laguntzeko erregimenen babesean egindako, eta Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren (NBBEF) Berme Sailak finantzatutako ordainketa zuzenekin lotutako xedapen orokorrak, 1227/1999 (EE) Araudian jasotakoak izan ezik.
- Nekazarien errenta osatzeko laguntza; Ordainketa Bakarra deituko da.
- Gari gogor, landare proteazeo, arroz, oskoldun fruitu, energia-laborantza, fekularako patata, esne, hazi, belarkien laborantza, ardi- eta ahutz-haragi, behi-haragi eta lekadun aleen produktoreei laguntzeko erregimenak.

Araudia, bost titulutan egituratzen da:

- I. titulua: Aplikazio eta definizioen esparrua.
- II. titulua: Baldintzazkotasun, modulazio, ustiategietarako aholkularitza-sistema, eta kudeaketa eta kontroleko sistema integralari buruzko xedapen orokorrak.
- III. titulua: Ordainketa bakarraren erregimena.
- IV. titulua: Bestelako laguntza-erregimenak.
- V. titulua: Xedapen iragankorrak eta azken xedapenak.

Gerora, araudi hori aldatu egin zuten, hainbat arrazoiren artean, Europar Batasunean Estatu kide berriak sartu zirelako (864/2004 eta 583/2004 Araudiak). Bestalde, tabako-, kotoi-, lupulu- produktoreentzako eta olibadiak dituzten nekazarietzako laguntza-erregimenak ezarri dituzte (864/2004 araudia). Halaber, ordainketa bakarraren erregimena askatasunez edo zati batean aplikatzeko eta azalaren arabera ordainketa bakarraren erregimenaren urteko finantza-horniduretarako aurrekontuetan mugak jarri dituzte (118/2005 araudia).

Europako Batzordearen 2004ko apirilaren 21eko 795/2004 (EE) Araudian, ordainketa bakarra aplikatzeko bete behar diren xedapenak ezartzen dituzte, eta nekazariei laguntzeko erregimen jakinak ezartzen dituzte. Halaber, Europako Batzordearen 2004ko apirilaren 21eko 796/2004 (EE) araudian aurreikusitako baldintzazkotasuna, modulazioa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituzte, eta nekazariei laguntzeko erregimen jakinak ezartzen dituzte.

Azkenik, 1782/2003 Araudiaren ondorengo xedapen arautzaileak argitaratu dituzte, Merkatu Antolakunde Bateratu (MABak) jakinak eta landa-garapenerako laguntzak aldatzeko.

Kontuan hartu behar da aurki, Nekazaritza Politikaren finantziarioa arautuko duen eta NBBEF desagertzea, eta FEAGA eta FEADER Fondo berriak sortzea aurreikusi duen Araudi berria onartuko dutela.

1.3. DEFINIZIO NAGUSIAK (alfabeto-ordenan)

Adierazitako denboran, jarduera hasten duen nekazaria	Nekazaritza-jarduera berriaren aurreko bost urteetan bere kontu eta arriskura nekazaritza-jarduerarik burutu ez duen, eta nekazaritza-jardueran diharduen pertsona juridiko bat bere zerbitzura izan ez duen edozein pertsona fisiko edo juridiko (795/2004 (EE) Araudiko 2k art.).
Animalia jakinak	Kanpaina bakoitzean, dirua jasotzeko araututako baldintza guztiak betetzen dituzten animaliak dira. Diru hori abeltzain bakoitzaren prima-eskubideen mugak eta oinarri nazionala gainditzearekin lotutako koefizientearen bidez zuzentzen da.
Azalera onargarria	Ustiategiaren laborantza-azalera da. Laborantzako lur eta larre iraunkorrak dira, laborantza iraunkor, baso, baratzeko laborantza, patatak edo nekazaritzarako erabiltzen dituzten lurak izan ezik.
Azalerak erabiltzea	Labore-mota edo landare-estalki gisa, edo estalkirik gabe azalerak erabiltzea.
Baldintzazkotasuna	Kudeaketarako legezko eskaeren arloan eta laborantza zein ingurumenari dagokionez bete behar diren baldintza egokien multzoa da. Nekazariak eta abeltzainek baldintza horiek bete behar dituzte Ordainketa Bakarra jaso ahal izateko.
Eskaera bakarra	Ordainketa bakarreko erregimenaren eta 1782/03 (EE) Araudiko IV. tituluaren ezarritako laguntza-erregimenaren arabera, zuzenean ordaintzeko eskaera. Titulu horretako 7, 11 eta 12. kapituluetan ezarritakoak kanpo geratuko dira.
Eskubide bereziak	Azalerarik ez badute edo eskubide bakoitzak 5.000 € baino gutxiago balio ez izateko nahiko ez duten abeltzaintzako primak sortutakoak dira (5.000 € baino gutxiago balio badute, azalera oinarritutako eskubideak dira).
Eskubideak alokatzea	Laguntza-eskubideak alokatzea edo denbora baterako antzeko edozein transakzio egitea da (795/2004 (EE) Araudiko 2h art.)
Eskubidearen balioa	Erretiratze-eskubideen eta azalera oinarritutako eskubideen balioa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin behar da: banandutako erreferentzia-zenbatekoa zati erretiratzean eta azalera oinarritutako eskubide-kopurua. Eskubide bereziak ezartzen dira, azalera ez dagoen kasuetan edo dagoena nahikoa ez denean; kasu honetan, eskubide berezi bakoitzaren balioa 5.000 eurokoa izango da gehienez ere.
Eskubideen erregistroa	Informatikako datu-basea. Horri esker, laguntza-eskubideak identifikatu eta erregistra ditzakegu, eta laguntza-eskaerekin datuak eta laborantzako lursailak identifikatzeko sistema egiaztatu dezakegu.
Eskubideen kopurua	Erreferentzia azalera hektarea kopurua da. Abeltzaintzan, bazka-azalera aitortu ez bada, eskubide bat banatzen da 5.000 euroko edo erreferentzia-epe barruan jasotako zenbateko horren frakzioko.
Eskubideen salmenta	Laguntza-eskubideen jabetza behin betiko lagatzea edo saltzea da (795/2004 (EE) araudiko 2 g art.).

Eskumeneko salbuespena	Erregimen bat ordainketa bakarraren erregimenetik kanpo utz ahal izatea da.
Erreferentzia-epea	<p>Oro har, 2000, 2001 eta 2002. urteei dagokiena da, hau da, 2000/2001, 2001/2002 eta 2002/2003 kanpainekin bat datorrena. Olibadirako 1999/2000 kanpaina ere sartzen da; beraz, 1999, 2000, 2001 eta 2002. urteak sartzen dira erreferentzia-epean. Ehun lihorako eta kalamurako, berriz, 2001 eta 2002. urteak dira erreferentzia-epea.</p> <p>Dena den, erreferentzia-epean jarduera hasi edo derrigorrez eman beharreko kasuetan kontuan har daitezkeen beste hainbat epe ere egon daiteke.</p>
Erreferentzia-zenbatekoa	<p>Erreferentzia-epearen barruan jasotako zuzeneko ordainketaren urteko batez bestekoa da. Azken batean, erreferentzia-zenbateko hori laguntza-ildo bakoitzerako kalkulatu diren erreferentzia-zenbatekoen batura da.</p> <p>Zehaztu dutenez, erreferentzia-zenbatekoa kalkulatzeko ez da kobratutako laguntzetan oinarritzen, laguntzen eskubidea duten hektarea- eta animalia-kopuruan baizik.</p>
Erreferentziako lursaila	SIGPACen oinarritik hartuta, identifikazio bakarra duen geografikoki mugatutako azalera, dagokion estatu kidearen identifikazio-sistemaren arabera (796/2004 (EE) araudiko 2.26. art.).
Erreserba nazionala (Espainian, erabaki gabe dagoen ehunekoa)	Eskubideak esleitzeko, Estatuak egindako diru-erreserba da: 2002. urtearen ondoren nekazaritza-jarduera hasten duten nekazari, egoera berezi eta egitura-programak kontuan izanda.
Hektarea onargarria	Ustiatetik laborantza-lurrak eta larre iraunkorrak kontuan hartzen dira hektarea onargarriak zehazteko; kanpoan gelditzen dira laborantza iraunkorreko lurrak, basoak, baratzeak, patata sailak edo nekazaritza bestelako jardueretarako erabiltzen direnak.
Laborantza-azalera	Larre iraunkor, laborantza-lur eta laborantza iraunkorretarako erabilitako azalaren batura da.
Laborantza-lurrak	Laboreak produzitzeko lurrak, produktioetik kendutako edo ingurumen eta nekazaritzarako baldintza onetan zaindutako lurrak, edo negutegiko edo babes finko edo mugikorrekiko lurrak dira (796/2004 (EE) araudiko 2.1. art.).
Laborantza iraunkorrak	<p>Larre iraunkorrak ez diren eta laborantza-txandatzea egiten ez duten laborantzak dira. Beti ere, lurrak bost urte edo gehiagoz okupatzen badituzte eta etengabe uztak produzitzen badituzte, mintegiak barne hartuta.</p> <p>Kanpoan geratutako dira urte anitzeko belarkien laborantzak eta hauen mintegiak (795/2004 (EE) Araudiko 2c art.)</p>
Laguntza bananduak	Produkzioa kontuan hartu gabe ematen dituzten laguntzak dira eta ordainketa bakarraren erregimenaren barnean daude.
Laguntza banantzea	Laguntza-eskubideek ekoizpenarekiko izan duten lotura desagertu egiten da. Lotura osoki edo partzialki desagertu daiteke. Osoki desagertzen denean, laguntza oso-osorik jaso daiteke ezer ekoiztu ez arren. Partzialki desagertuz gero, ordea, laguntzaren zati bat ekoizpenari lotuta edo erantsita geratzen da.

Laguntza egokituak	Produkzioari lotuta dauden eta ordainketa bakarraren erregimenetik kanpo geratzen diren laguntzak dira.
Larre iraunkorrak	Bost urtez edo gehiagoz, ustiategiaren laborantzen errotazioa egin ez duten gramineoak edo bestelako bazka belarkarak landatzeko erabilitako lurrak, naturalak (espontaneoak) edo landatuak (ereindakoak) (796/2004 –EE- araudiko 2.2. art.).
Maximo nazionaleko muga	Estatu kide bakoitzarentzako Batzordeak erabakitako sektoreen arabera ordainketa zuzenen guztizko kopurua, bai ordainketa bakarreko erregimenean sartutakoentzat, eta bai kanpoan geratutakoentzat.
Modulazioa	Zuzeneko ordainketen urteko murrizketa da. Nekazari eta abeltzain guztiei ezartzen zaie era linealean, maximo nazionaleko mugaren doikuntza eta erreserba nazionalerako murrizketa egin ondoren. 2005eko urtarilaren 1etik aurrera modulazioa nahitaezkoa izango da.
Nekazaria	Ustiategia, Europar Batasunaren mugen barnean duen eta nekazaritzan diharduen edozein pertsona fisiko edo juridiko, edo pertsona fisiko edo juridikoen taldea da, taldeari eta bertako kideei estatuko legeriak ematen dien araubide juridikoa kontuan hartu gabe. (1782/2003 (EE) Araudiko 2a art.).
Nekazaritza-jarduera	Nekazaritzako produktuak ekoiztu, hazi edo lantzea da. Bertan sartuko dira uzta, jeztea, animaliak haztea eta nekazaritzako animaliak mantentzea, edo lurra nekazaritza- eta ingurumen-jardueretarako egoera onean zaintzea (1782/2003 (EE) Araudiko 2 c art.)
Ordainketa bakarra	Orain arte ekoizpenari lotuta zeuden laguntzen zati bat (laguntza zuzenak) — belarkiak, ardi- eta ahuntz-azienda, behi-azienda arra, eta abar— ordainketa bakarraren bidez jasoko da, ekoizpenik izan ala ez izan. Ordainketa mota hori, Espainian, eskubide historikoen arabera ezarri da.
Ordainketa bakarraren aplikazio partziala	Laguntza-erregimen bat % 100ean banantzen ez denean.
Ordainketa bakarraren erregimena	Euren jabetzako eskubideen eta aitortzen dituzten azalaren arabera, ekoizleentzako laguntza da. Azalera horiek estatu kideak zehaztu beharreko gutxienez 10 hilabetez nekazariak erabiltzeko egon behar dute.
Ordainketa gehigarria (Espainiako hainbat lineatan erabakitzeko dago) (69. artikulua)	Ingurumena babestu eta hobetzeko, edo nekazaritzako produktuen kalitatea eta salmenta hobetzeko garrantzitsuak izango diren nekazaritzako jarduera-mota espezifikoei emango dieten primaren zenbatekoari eransteko ordainketa, Batzordeak zehaztu beharreko baldintzak kontuan hartuta.
Ordainketa-eskubideak	Nekazari edo abeltzain bakoitzak jaso ditzakeen laguntzak “ordainketa-eskubideetan” oinarrituko dira. Eramaileri emandako tituluak bezalakoak dira. Esku-diru bihurtzeko hainbat baldintza bete behar dituzte; horien artean batez ere, produkzio-azalera izatea.
Produkzio-unitatea	Aipatutako epean ordainketa zuzeneko eskubideak eman zituen azalera edo animalia bat (edo talde bat), eta hala badagokio, prima eskuratzeko horri dagokion eskubidearekin (795/2004 (EE) araudiko 2 j art.).

Ustiatagia	Nekazari batek administratutako eta estatu kide bereko lurretan kokatutako produkzio-unitate guztiak (1782/2003 (EE) araudiko 2b art.).
Zenbateko gehigarria	Nekazariari itzultako modulazioa aplikatzeagatik sortutako zenbatekoetatik sortzen da eta ordainketa zuzenen lehen 5.000 euro edo gutxiago arte kontuan hartutako urte naturalari dagokion murrizteko ehunekoa aplikatu izan duten zenbatekoarekin bat dator, beti ere kontzeptu honengatik estatuan finkatutako gehiengoa gainditzen ez badute.
Zuzeneko ordainketa	1782/2003 (EE) Araudiaren I. eranskinean adierazitako errentarako laguntza-erregimen baten arabera, nekazariei zuzenean egindako edozein ordainketa.

1.4. NPB-AREN ERREFORMAN SARTUTAKO LAGUNTZA-ERREGIMENAK. ORDAINKETA BAKARRA ETA BESTELAKO LAGUNTZA-ERREGIMENAK

1782/2003 (EE) Araudia aplikatuta, Estatu kideek, NPbaren Erreforma aplikatzearekin eta, zehazki, ordainketa bakarraren erregimena aplikatzearekin lotutako erabaki zehatzak hartu behar dituzte.

Estatuan dagoneko hainbat erabaki hartu dituzten arren, zenbait gauza oraindik erabakitzeke daude. Estatuan hartutako erabakien arabera, NPbaren erreforma estatu osoan aplikatuko dute honako modu honetan:

1.4.1. ORDAINKETA BAKARREKO ERREGIMENA

Estatuan ordainketa bakarra aplikatzeko irizpide orokorrak:

- Laguntza-sistema berria hasteko urtea: 2006.
- Eskubideen kalkulua, aipatutako epean oinarrituta.
- Ordainketa bakarreko sistema eskualde-mailan ez aplikatzea (Kataluniako Autonomia Erkidegoko auziaren zain).
- Laguntza-linea bakoitzerako banantzeko maila.

LAGUNTZA ILDOA		% BANAKETA (*)	
BEHI AZIENDA	Behi ume-hazlea	% 0	
	Txekorren hilketa	% 0	
	Helduen hilketa	% 60	
	Abelgorri arrenkatiko sari berezia	% 100	
	Zabalkunderako ordainketa	% 100	
	Ordainketa gehigarriak	% 100	
ESNE-PRIMA	Esne-kuota	% 100	
	Ordainketa gehigarriak	% 100	
ARDI ETA AHUNTZ AZIENDA	Abelburuko prima	% 50	
	Eremu kaltetuentzako primak	% 50	
	Ordainketa gehigarriak	% 50	
BELARKIEN LABOREAK	Zerealak	% 75	
	Olio-landareak	% 75	
	Lekadun-aleak	% 100	
	Landare proteazeoak	% 75	
	Landare proteazeoengatikoko laguntza berezia	% 0	
	Borondatezko erretiratzea	% 75	
	Derrigorrezko erretiratzea	% 100	
	Gari gogorraren gehigarria	% 75	
	Gari gogorraren kalitate-prima	% 0	
	Laborantza energetikoentzako laguntzak	% 0	
	Haziak	% 0	
	Oliba-olioa	% 95	
	Tabakoa	2006-2009	% 40
		2010- ...	% 100

(*) Maximo nazionaleko mugaren ehunekoa

Estatuan, ordainketa bakarreko erregimena aplikatzeko, honako irizpide orokor hauek oraindik ere erabaki gabe daude:

- Atxikipena egiten dieten sektoreen gainean, nekazaritzako jardueren tipo espezifikoiei (kalitatea, merkaturatzea edo ingurumena hobetzeko) ordainketa bereziak egiteko maximo nazionalako mugak atxikitzeke ehunekoa (gehienez % 10eko murriztapena). Ehuneko hau 69. artikularen aplikazio bezala ezagutzen da.
- Erreserba nazionala sortzeko, erreferentzia-zenbatekoiei buruzko murriztapen-ehunekoa (gehienez % 3ko murriztapena).
- Erreserba Nazionala eskualde-mailan jartzea.
- Eta abar.

1.4.2. NPB-AREN ERREFORMAN SARTUTAKO BESTE HAINBAT LAGUNTZA-ERREGIMEN (PRODUKZIOARI EGOKITUAK)

Produktioarekin lotuta dauden laguntza-erregimenak 1782/2003 (EE) Araudiaren irizpide orokorren mende daude (baldintzazkotasuna, modulazioa, kudeaketa eta kontroleko sistema integratua, eta abar). Honako hauek dira:

LAGUNTZA ILDOA		EKOIZPENARI LOTUTAKO % (*)	
BEHI AZIENDA	Behi ume-hazlea	% 100	
	Txekorren hilketa	% 100	
	Helduen hilketa	% 40	
	Abelgorri arreatikoko sari berezia	% 0	
	Zabalkunderako ordainketa	% 0	
	Ordainketa gehigarriak	% 0	
ESNE-PRIMA	Esne-kuota	% 0	
	Ordainketa gehigarriak	% 0	
ARDI ETA AHUNTZ AZIENDA	Abelburuko prima	% 50	
	Eremu kaltetuentzako primak	% 50	
	Ordainketa gehigarriak	% 50	
BELARKIEN LABOREAK	Zerealak	% 25	
	Olio-landareak	% 25	
	Lekadun-aleak	% 0	
	Landare proteazeoak	% 25	
	Landare proteazeoengatikoko laguntza berezia	% 100	
	Borondatezko erretiratzea	% 25	
	Derrigorrezko erretiratzea	% 0	
	Gari gogorraren gehigarria	% 25	
	Gari gogorraren kalitate-prima	% 100	
	Laborantza energetikoentzako laguntzak	% 100	
	Haziak	% 100	
	Oliba-olioa	% 5	
	Tabakoa	2006-2009	% 60
		2010- ...	% 0

(*)Maximo nazionalako mugaren ehunekoa

1.5. KUDEAKETA ETA KONTROLEKO SISTEMA INTEGRATUA

Ustiategiak kudeatu eta kontrolatzeko, "sistema integratua" jarri dute martxan. Bertan, honako elementu hauek bereizten dira:

- Informatikako datu-basea.
- Nekazaritzako lursailak identifikatzeko sistema (SIGPAC)
- Laguntza-eskubideak identifikatu eta erregistratzeko sistemak.
- Laguntza-eskaerak.
- Kontrol integratuko sistema.
- Nekazari bakoitzaren identitatea erregistratzeko sistema bakarra.
- Animaliak identifikatu eta erregistratzeko sistema.

Nekazaritzako Eskualdetako Bulegoetan (OCA), bertako pertsonal teknikoaren bidez, lursail bakoitzari buruzko SIGPACaren informazioa kontsulta daiteke. Halaber, interneten eskura dagoen bisore kartografikoaren bidez ere kontsulta daiteke SIGPACaren informazioa, udalaren, poligonoaren eta lursailaren datuetan oinarritutako bilaketa-sistemarekin. Bisore horrek lursailari buruzko informazio grafikoa eta honi lotutako informazio guztia ematen ditu. Web orriaren helbidea:

www.nasdap.ejgv.euskadi.net

<http://feganet.mapa.es>

LAGUNTZA ESKAERAK:

Nekazari bakoitzak urtean eskaera bat aurkeztuko du. Bertan honako datu hauek eman behar ditu:

- Lursail guztiak.
- Eskubideen kopurua eta zenbatekoa.
- Beste hainbat datu.

Ustiategi bateko lursail guztiak aitortzen ez badituzte, ordainketa zuzenen % 3 arteko zigorra izan dezakete.

1.6. LAGUNTZAKO ZENBATEKO GEHIGARRIA, MODULAZIOA ETA BALDINTZAK, DIZIPLINA FINANTZARIOA, USTIATEGIENTZAKO AHOLKULARITZA-SISTEMA, NEKAZARITZAKO JARDUERAK, PRODUKZIOAREN KALITATEA ETA LANDA GARAPENeko NEURRIAK.

1.6.1. BALDINTZAZKOTASUNA

Baldintzazkotasuna ondorengoa da, osasun publikoaren arloan, arlo zoosanitario eta fitosanitarioan, ingurumenean eta animalien ongizatean dauden baldintzen multzoa, kudeatzeqari dagokionez. Halaber, esleitu dioten ustiapenagatik dagokion ordainketa bakarra osorik jasotzeko, nekazaritza eta/edo abeltzaintzako jarduerak dituen produktoreak bete behar dituen nekazaritza eta ingurumeneko baldintzak ere kontuan hartzen ditu.

Baldintzak honako hauek dira:

a) 1782/2003 (EE) araudiaren III. eranskinean aipatzen dituzten arteztarauek ezarritako **kudeatzeko baldintza legalak**. Baldintza horiek honako data hauetan jarriko dituzte indarrean:

2005. urteko urtarrilaren 1ean:

- Ingurumena.
- Osasun publikoa eta animalien osasuna.
- Animaliak identifikatu eta erregistratzea.

2006. urteko urtarrilaren 1ean:

- Osasun publikoa, eta albaitaritzarekin eta arlo fitosanitarioekin lotutako gaiak.
- Gaixotasunen jakinarazpena.

2007. urteko urtarrilaren 1ean:

- Animalien ongizatea.

b) Ustiatagia **nekazaritza eta ingurumenaren ikuspegitik egoera onean** mantentzea. 2005. urteko urtarrilaren 1etik aplikatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren Nekazaritza Politikaren esparruan laguntza zuzenekin lotuta, baldintzazkotasuna aplikatzeko urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretuan, ondorengo gaietan bete beharreko praktikei buruzko alderdiak bildu dituzte:

- Bertako aldapa-baldintzetara egokitutako nekazaritza.
- Lurzoruaren gutxieneko estaldura.
- Atxikitze-terrazak mantentzea.
- Uztondoak kudeatzea.
- Makina egokiak erabiltzea.
- Larre iraunkorrak babestea.
- Laborantza-lurretan landaretza espontaneo inbaditzailetik prebenitzea.
- Habitatak zaintzea.

Baldintzazkotasuna **betetzen ez badute, laguntza murriztuko** diete:

- a) Arduragabekeriagatik, hasieran % 3, baina % 1era arte murriztu edo % 5era arte handitu daiteke. Behin eta berriz betetzen ez badute, % 15era arte hel daiteke.
- b) Nahita betetzen ez badute, % 20. Ehuneko hori % 15 arte murriztu edo, hutsegite larriagatik, erabat baztertzerara arte hel daiteke.

1.6.2. MODULAZIOA ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKO GEHIGARRIA

Modulazioa: Zuzeneko ordainketen urteko murrizketa da. Nekazari eta abeltzain guztiei ezartzen zaie era linealean, maximo nazionalako mugaren doikuntza eta erreserba nazionalerako murrizketa egin ondoren.

Modulazioa derrigorrezkoa izango da 2005etik 2012ra, eta honako ehuneko hauek kontuan hartuta aplikatuko dute:

- 2005. urtea: ehuneko 3.
- 2006. urtea: ehuneko 4.
- 2007. urtetik 2012. urtera: ehuneko 5 urte bakoitzean.

Modulazioa aplikatuz bildutako zenbatekoen zati bat nekazariari itzuliko diote, **laguntzako zenbateko gehigarri** gisa. Zenbateko hori kontuan hartutako urte naturalari dagokion murriztapen-ehunekoa aplikatuta emango denaren berdina izango da, hots, ordainketa zuzenen lehen 5.000 euroak arte, eta beti ere kontzeptu horrengatik estatuan finkatutako muga maximoa gainditzen ez badute. Beraz, ordainketa bakarraren lehen 5.000 euroak ez dira modulazioaren barnean sartuko; hala ere, erabilitako mekanismoaren ondorioz, hasieran, modulazioa aplikatuko dute; hala ere aurrerago, atxikipena nekazariari edo abeltzainari itzuliko diote, dagokion urte naturalaren hurrengo urteko irailaren 30a baino lehen.

Beraz, zenbateko gehigarriari dagokionez, gehienez kopuru hauek itzuliko dituzte:

- 2005. urtea: 5.000 €ren % 3 = 150 €
- 2006. urtea: 5.000 €ren % 4 = 200 €
- 2007. urtetik 2012. urtera: 5.000 €ren % 5 = 250 €

Estatu batek guztira laguntza gehigarri gisa emandako kopuruak ezingo ditu dagoeneko ezarrita dauden mugak gainditu. Espainiako estatuaren kasuan mugak honako hauek dira:

- 2005. urtea: 55,1 milioi €.
- 2006. urtea: 74,3 milioi €.
- 2007. urtetik 2012. urtera: 92,9 milioi €.

Modulazio bidez lortutako fondoak estatu kideen artean banatuko dituzte, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Zenbatekoa sortzen duen estatu kide bakoitzari ehuneko puntu bat emango diote.
- Gainerako fondoak nekazaritzako azaleraren, nekazaritza-arloko enpleguaren eta BPGd-ren arabera banatuko dituzte.

Estatu guztiek, eurek bildutako fondo guztien % 80 gutxienez berreskuratuko dute. Fondo hauek Landa Garapeneko Programak finantzatzeko balioko dute: aldez aurreko etetea, konpentsatzeko kalte-ordainak, zuhaitzak sartzea, nekazaritza eta ingurumeneko neurriak, eta abar.

Ordainketa zuzeneko ildo guztiak modulatuak izango dira (1782/2003 araudiko I. Eranskina). Euskal Autonomia Erkidegoan honako arlo hauek eragiten du: belarkien laborantzak, gari gogorra, proteazeoak, lekadun-aleak, laborantza energetikoak, haziak, oliba-olioa, tabakoa, behi-haragia, ardi- eta ahuntz-haragia, esnea eta esne-produktuak.

Adibidea: 2006. urtean 10.000 euroko laguntza jasotzen duen nekazari bat.

- Modulazioa: 2006. urtea denez, % 4 aplikatzen dute.
- Zuzeneko ordainketa: 10.000 - (10.000ren % 4) = 9.600 euro
- Laguntzaren zenbateko gehigarria: 5.000 euroren % 4 = 5.000 x % 4 = 200 euro.

Horrenbestez, nekazariak kobratuko du: 9.600 (zuzeneko ordainketa) + 200 (zenbateko gehigarria) = 9.800 euro

1.6.3. DIZIPLINA FINANTZARIOA

2007. urtetik aurrera, laguntza zuzenei kenketa gehigarriak aplikatu ahal izango zaizkie, ordainketa bakarrari zein gainerako laguntzei dagokienean, baldin eta Europar Batasuneko nekazaritza-politikaren merkatu-proposamenen eta laguntza zuzenen aurrekontuek ezarritako muga finantzarioak gainditzen badituzte (zehazki martxan jarriko litzateke, aurreikusitako aurrekontura heltzeko 300 milioi euro edo gutxiago faltatzean).

Kenketa hau modulazioaren aurretik aplikatuko litzateke, ez du muga zehatzik, eta behar den neurrian egin ahal izango dute.

1.6.4. USTIATEGIEN AHOLKULARITZA SISTEMA

2007. urteko urtarrilaren 1a baino lehen, lurren eta ustiategien kudeaketari buruz nekazari eta abeltzainei aholkatzeko sistema ezarri beharko da.

Aholkularitza horretan, gutxienez, kudeaketako baldintza legalak, eta nekazaritza eta ingurumeneko jardunbide egokiak bilduko dira.

Nekazariak nahi badute Sistemari hartuko dute parte (Batzordeak, 2010. urtetik aurrera derrigorrezko bihurtzeko aukera du), eta datuen konfidentzialtasuna bermatzen dute. Urtean 15.000 euro baino gehiagoko laguntza jasotzen dituzten nekazariak lehentasuna emango diete, bai eta 2000 Natura Sareko ustiategiei, emakumei eta gazteei ere.

1.6.5. NEKAZARITZAKO JARDUERAK ETA PRODUKZIOAREN KALITATEA (69. ARTIKULUA)

Estatu kideek, nahi badute, ordainketa bakarraren % 10 arteko kenkaria ezar dezakete, horrela ingurumeneko baldintzen kalitatea eta hobekuntza sustatzeko politikei erantzuteko.

Espainiak aukera hori gauzatuko du, zenbat kenduko duen eta horrekin zein helburu duen zehaztu ez badu ere. Hasieran, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioak Autonomia Erkidegoei, % 5 kentzea eta Zona Kaltetuetan ematen dituzten kalte-ordainen antzeko laguntzetarako erabiltzea proposatu zien, baina oraindik ez dute ezer erabaki.

1.6.6. LANDA GARAPENERAKO NEURRIAK

- Elikagaien kalitatea sustatuko dute, nekazariak eta produktore-erakundeei laguntzak emanez.
- Ustiategiak ezarritako arauetara eta aholkularitza-zerbitzuetara egokitu behar dira.
- Abereen ongizaterako laguntzak handituko dira.
- Ingurumen-arloko programetarako Europar Batasunaren finantziazioa handituko da (1. helburuko zonetarako laguntzaren % 85 eta gainerako zonetarako % 60).
- Gazteak lehen aldiz instalatzeko laguntzak handitzea, 30.000 euro arte eta % 60 arte, zona kaltetuetan.
- Natura 2000 Sarean sartutako zonetarako, Konpentsatzeko Kalte-ordainen ondoriozko laguntza handitzea.

Landa-Garapen Iraunkorreko Plan berriak 2007/2013 eperako balioko du.

2. ORDAINKETA BAKARRA

Ordainketa bakarreko erregimena EZ dago garatutako produktibitate-jardueraren mende.

Ordainketa bakarraren laguntza nekazariaren eskubideetan oinarrituz ordainduko dute. Eskubide horiek hektarea onargarrien kopuru bera izan behar dute. Hektarea horiek Estatu kideak erabakitako 10 hilabetetan gutxienez nekazariaren esku egon beharko dute.

Espanian, eskubideen kopurua eta balioa erreferentzia-epea bezala definitutako epe jakin bati lotutako balio historikotan (azalerak eta zenbatekoak) oinarrituta esleitzen dute.

2.1. ORDAINKETA BAKARRAREN ERREGIMENA EZARTZEA

Erregimena ezartzeak honako fase hauek izango ditu:

- 2005. urtean:
 - Erreferentzia-zenbatekoak eta hektarea jakinak ezartzea (kalkulua, interesatuei jakinaraztea eta alegazioen prozesua).
 - Eskubideen behin-behineko esleipena ezartzea (kalkulua, interesatuei jakinaraztea eta alegazioen prozesua).
- 2006. urtean:
 - Eskubideak behin betiko esleitzea: Eskubideen esleipena behin-behineko izatetik behin betiko izatera pasatzeko, nekazariak eta abeltzainak eskubideak aktibatu beharko dituzte. Automatikoki aktibatuko dituzte, 2006ko kanpainarako ordainketa bakarreko eskaera aurkeztuz.
 - Erreserba nazionalako eskubideen lehen esleipena.

2.2. ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEEN ONURADUNAK

Ordaintzeko eskubideak dituzten nekazariak bakarrik izango dute ordainketa bakarraz baliatzeko aukera.

Arau orokor bezala, ordainketa bakarreko eskubideak adierazitako epean ordainketak dituzten nekazariak esleituko dizkiete. Hala ere eskubideak lor daitezke, ordainketa-eskubideak berriz esleitzeko prozesu baten ondoren.

Aipatu bezala, nekazariak esleituko dizkieten eskubideak behin-behinekoak izango dira, eta behin betiko izateko 2006. urtean eskatu eta kobratu beharko dituzte.

Ondorengo kasu hauetakoren batean dauden nekazariak ordaintzeko eskubidea lortu ahal izango dute:

a) Hasieran esleituz

Ordainketa bakarreko eskubideen hasierako titular gisa, aipatutako epean ordainketa zuzenen bat jaso zuten nekazariak izango dira. Eskubideak, hasieran, aipatutako epean ordainketak jaso zituzten nekazariak esleitu zizkieten, luraren jabe ziren ala ez kontuan hartu gabe.

Ordainketa bakarreko eskubideak hasieran esleitzeko, honako laguntza-ildo hauek hartzen dituzte kontuan:

- Nekazaritza-primak: zerealak, artoa, lihoa, kalamua, lurrak erretiratzea, olio-landareak, landare proteazeoak, laguntza berezia, eta gari gogor, lekadun, arroz, patata-fekula, bazka lehortu, lupulu, kotoi, olio eta tabakorako osagarriak.
- Abeltzaintza-primak: Zezenak, idiak, hilketa, zabalkundea, behi-, ardi- eta ahuntz-azienden ordainketa gehigarria, ardi eta ahuntzen prima osagarria, eta ardi eta ahuntzen ordainketa gehigarria.
- Esnea eta esnekiak: esneki-prima eta ordainketa gehigarriak.

Arau orokor bezala, hasieran, eskubideak, aipatutako epean laguntzak jaso zituzten ustiatuegien titularrei esleituko zaizkie. Lur komunak ez dira kasu berezia, eta edozein errentamenduren parekoak dira.

b) Berriz esleituz

Aipatutako epean ordainketak jaso ote dituzten kontuan hartu gabe, hasieran beste titular bati esleitutako eskubideak edo erreserba nazionaletik jasotako eskubideak berriz esleituz jaso daitezke.

BESTE TITULAR BATEN ESKUBIDEAK BERRIZ ESLEITZEA

Egoera jakinetan, nekazariak, esleitu zaizkien eskubideak berriz kalkulatzeko eska dezakete. Eskubideak jasotzeko edo daudenak aldatzeko arrazoiak:

1. Jaraunspena (mortis causa)

Egoera hori aipatutako epean edo 2003. urtetik 2005. urtera doan epean eman daiteke.

Ustiategi osoa edo zati bat jaraunspen gisa jasoz gero, jaraunselek, erreferentzia-zenbatekoak eta hildako pertsonari esleitutako hektareak eurei emateko eskatu beharko dute. Halaber, eskubideak lortzeko baldintzak betetzen dituen ustiategi baten errentamendua jaraunspen gisa jasotzen badute, jaraunselek, erreferentzia-zenbatekoak eta hildako pertsonari esleitutako hektareak eurei emateko eskatu ahal izango dute. Eskaerarekin batera, testamentua eta jaraunspena onartzen dutela adierazten duen eskritura publikoa aurkeztu beharko dituzte.

Hala ere, jasotzaileaz gain, nekazaria ere badela egiaztatu beharko du; bestela, berari legezkiokkeen eskubideak erreserba nazionalaren esku geratuko lirateke.

Nekazariak ustiategi bat badu, erreferentzia-zenbatekoak eta hektareak, berezko hasierako ustiategiaren guztizkoaren eta jaraunspen gisa jasotako produkzio-unitateen arabera ezarriko dituzte.

2. Behar baino lehenagoko jaraunspena (inter vivos), emateak, lagatzeak eta doako transferentziak 4. mailako ahaidetasun edo odolkidetasunera arte

Gertakari horiek aipatutako epean edo 2003. eta 2005. urteen bitartean eman daitezke.

Ustiategiaren hartzaileak eskatu behar du, lagatzaileak berariaz baimenduta.

Lagatzaileak nekazaritzako jarduera uzten du edo ustiategiaren zati batekin lanean jarraitzen du.

Jaraunseleari edo ustiategiaren ardura hartzen duenari erreferentzia-zenbatekoak eta hektareak esleituko dizkiote, eta honek bereak gehi transferituak izango ditu.

Behar baino lehenagoko jaraunspenak baliogabetu daitezkeela kontuan hartuta, ordainketa bakarreko eskubideak esleitzeko, eskaeraren unean agertzen den jaraunseleari esleituko dizkiote.

3. Salerosketako kontratu pribatuak

Kontratu hauek ordainketa bakarreko erregimenaren eskaera aurkezteko muga-eguna baino lehen egin edo aldatu behar dira.

Ustiategiaren zati bat edo osorik saltzea, gehi ondorioz emango diren eskubideak aurrerago kalkulatzeko hektarea zehatzak edo erreferentzia-zenbatekoak saltzea suposatzen du.

Erosleak, saltzailearen izenean eta honen baimen esplizituarekin, erreferentzia-zenbatekoak eta hektarea zehatzak esleitzeko eskatzen du. Eskaera-dokumentua erosleak eta saltzaileak sinatu behar dute, eta salerosketaren dokumentu publiko edo pribatua esleitu beharko dute.

Ustiategiaren zati bat salduz gero, azalera bakoitzari (lehorreko lurra edo sail ureztatuak) dagokion ehunekoa eta erreferentzia-zenbatekoak (adierazitako epeko produktu/erabilera jakina) adierazi beharko dituzte.

4. Izenaren nortasun juridikoaren aldaketa

Aldaketa hau aipatutako denboran edo 2003. urtetik 2005. urtera doan epean egin daiteke.

Ordainketa bakarreko erregimenerako sarrera erreferentzia-epean ustiategia kudeatzen zuen nekazariak zituen baldintza berberekin egingo du (erreferentzia-zenbatekoa eta hektareak, hasierako ustiategiak kalkulaturako berberak).

Nekazariak Administrazioari izenaren aldaketaren berri eman beharko dio, sozietatea eratzeko eskritura publikoaren bidez.

Ustiategi berria kudeatzen duen nekazariak, kudeaketa, mozkin eta arrisku finantzariotan hasierako ustiategia kontrolatzen zuen berberak izan beharko du.

5. Bat-egiteak (hainbat pertsona fisiko edo juridiko pertsona juridiko berri batean biltzea)

Erreferentzia-zenbatekoak eta hektarea zehatzak esleitu zizkieten hainbat nekazari pertsona juridiko berri batean bildu dira.

Pertsona juridiko berrian, gutxienez, hasierako ustiategia kudeatzen zutenetako batek egon behar du (batek, gutxienez, jarraitu egin behar du).

Pertsona juridiko berriak, bat egin duten ustiategi guztiak izan beharko ditu.

Administrazioari emandako komunikazioan, hasierako nekazarien eta bat egin duten sozietatearen datuak adierazi beharko dituzte, bai eta egiaztatzeko beharrezkoa iruditzen zaien dokumentazioaren kopia ere (eskritura, estatutuak, eta abar).

6. Pertsona juridikoaren zatiketa (jatorrizkoak jarraituz ala ez) eta pertsona fisiko bat edo gehiago eta/edo pertsona juridiko bat edo gehiago agertzea

Erreferentzia-zenbatekoak eta hektareak proportzionalki kalkulaturako dituzte pertsona fisiko edo juridiko berrientzat.

Erreferentzia-zenbatekoek edo hektareek beste balio batzuek badituzte (produktuen edo errendimendu diferenteko azalaren arabeko zenbateko diferentek), "nekazari berri" bakoitzari esleitzen diotena adierazi beharko dute.

Zatiketa Administrazioari jakinarazi beharko zaio eredu normalizatuaren bidez, eraginpeko guztien sinadurarekin, eta jatorrizko sozietatea zatitu dela erakutsiko duten dokumentazioen kopiarekin.

Ustiategiaren kudeaketarekin jarraitzen duten "nekazari berrien" arteko batek, gutxienez, jatorrizko pertsona juridikoko kide izan behar du.

7. Ezohiko zailtasunak. Erreferentzia-epearen aldaketa

Erreferentzia-epean, ezohiko arrazoiengatik produkzioan kalteak izan zituzten nekazariak erreferentzia-zenbatekoa, ezohiko gertakari hauek eragin ez zuten urtean edo urteetan oinarrituta kalkulatzeko eskaera egiteko eskubidea izango dute. Eta kalteek erreferentzia-epe osoa hartu badute, 1997-1999 epea hartuko dute kontuan.

Nekazari batek jatorrizkoa ez den erreferentzia-epe batean eskubideak kalkulatzeko eska dezake honako kasu hauetan:

- Nekazariak jarduera erreferentzia-epe batean hasten badu, garatutako jardueren ondorioz ordaindu dizkieten urteak hartuko dituzte kontuan kalkulua egiteko.
- Erreferentzia-epean, halabeharreko arrazoiengatik edo ezohiko arrazoiengatik kaltetutako nekazarien kasuan, kalkulua kaltetu gabeko urteetan oinarrituak egingo dituzte. Eta kalteek erreferentzia-epe osoa hartu badute, 1997-1999 epea hartuko dute kontuan.
- Erreferentzia-epean, tabako-kuotak berreskuratzeko programa jakinen barne izan diren nekazariak, kalkulua eraginik gabeko urteetan edo urtean erabiltzeko eskatu ahal izango dute. Eta programek erreferentzia-epe osoa hartu badute, 1997-1999 epea hartuko dute kontuan.

ERRESERBA NAZIONALEKO ESKUBIDEAK BERRIZ ESLEITZEAREN ONDORIOZKO ONURADUNAK

Erreserba nazionalako eskubideak jasotzeko, nekazariak 795/2004 (EE) Araudiko 19 eta 23 bis arteko artikuluetan aipatzen diren egoera berezietakoren batean egon behar dute. Erreserba nazionalako eskubideek esleitu eta erabiltzeko baldintza bereziak dituzte.

1. Erreserba nazionalaren ordaintzeko eskubideak aplikatzeko baldintzak:

- Erreserba nazionaletik datozen ordaintzeko eskubideak eskatzen dituen nekazari batek ezingo ditu, aplikatzeko lehen urtean eskatzeko datan, jabetzan edo errentamenduan aitortutako hektarea-kopurua baino eskubide gehiago jaso.
- Aldez aurretik eskubideak izango balitu, erretiratze-eskubideak eta eskubide bereziak ez diren ordaintzeko eskubide guztiak erreserba nazionalari eman behar lizkioke.
- Erreserba nazionalako eskubideak ezingo dituzte lehen 5 urteetan laga.
- Erreserba nazionalako ordainketa-eskubide bat erabiltzen ez badute, eskubide hori zuzenean erreserba nazionalera itzuliko da.

2. Nekazariak erreserba nazionalako eskubideez baliatu ahal izango dira, jarraian adieraziko ditugun egoera berezietan (795/2004 (EE) Araudiko 19 eta 23 bis arteko artikulua). Nekazari bat egoera berezi bat baino gehiagotan badago, egoera bakoitzerako egindako kalkuluen ondoren eskubideen balio altuena hartuko dute.

2.1. *Esne-produktoreak.*

Esne-kuota izan arren, 2005/2006 kanpainarako halabeharrez akuratu dizkieten eta, horrenbestez, 2006ko martxoaren 31n kuota eskuragarri ez duten esne-produktoreak.

Eskubideen esleipena egiteko, akuratu izan ez balu izango zuen kuota hartuko da kontuan.

2.2. Alokaturako lurak lagatzea.

Erreferentzia-epetan beste pertsona bati alokatua zegoen ustiategia edo honen zati bat jasotzen duten nekazariak dira.

Ustiategi hau ordainketa bakarrek eskuerak aurkezteko muga-egunaren aurretik hil edo erretiratutako nekazari batengandik jasotzen du, doako lagapen bidez, 6 urte edo gehiagorako alokatuz, edo jaraunspen erreal edo aurreratu bidez.

Erreferentzia-zenbatekoa estatu kideak ezarriko du.

2.3. Inbertsioak eta lurak erostea.

Ustiategiaren produkzio-ahalmenaren arloan inbertsioak egin dituzten edo beranduen 2004ko maiatzaren 15ean lurak erosi dituzten nekazariak dira. Halaber, inbertsio bezala jotzen dituzte, beranduen 2004ko maiatzaren 15ean 6 urte edo gehiagorako alokatzeak.

Kasu hauetan honako baldintza hauek ezartzen dituzte:

- Produzitzeko gaitasuna ordainketa bakarrean sartzen dituzten sektoreei buruzkoa da bakarrik, hau da, ardi- eta ahuntz-azienda, abelgorri arrak, hilketa eta esne-sektorea.
- Erositako lurrian, ordainketa bakarraren erregimenerako aukera daitezkeen laborantzako produktuetakoren bat landu behar izan dute, hau da, laborantza-lurak edo larre iraunkorrak.
- Inbertsioak plan edo programa baten barnean aurreikusi beharko dira. Plan edo programa idatzita ez badago, inbertitzeko beste hainbat froga objektibo hartu ahal izango dituzte kontuan.
- Erreserba esleitzeko, ez dituzte kontuan hartuko produktorearen eskubideen hasierako esleipenean jasotako inbertsioak (adibidez: saila ureztatzeko egindako hobekuntza ez da barne hartuko, erreferentzia-epetan sail ureztatu bezala aitortu badute; sail ureztatu gisa eraldatzeko, sail ureztatuaren eta lehorreko sailaren arteko azalerarako kalkulaturako zenbatekoen arteko diferentzia jaso beharko luke).
- Eskubideen balioa ezingo da ezarritako erreferentzia-zenbatekoa baino handiagoa izan.

Kasu hauetan honako baldintza hauek ezartzen dituzte:

- Produktoreari dagoeneko berezko eskubideak esleitu badizkiote, eskubide horien balioa handituko da, gehienez erreferentzia-zenbatekora arte.
- Nekazari batek hektarearik edo laguntza-eskubiderik ez duenean, baldintza berezien araberrako laguntza-eskubideak aplikatuko dizkiote. Eskubide horiek erreferentzia-epetan izan zuten nekazaritzako jardueraren % 50i eusten badiote, eskubide bakoitzari hektarea onargarri bat emateko obligaziotik salbuetsiak gera daitezke.

2.4. Alokatzeta eta alokatutako lurak eskuratzea.

Nekazari hauek:

- Erreferentzia-epetan eta 2004ko maiatzaren 15aren artean, 6 urte edo gehiagorako ustiategi bat edo honen zati bat alokatu dute.
- Erreferentzia-epetan edo lehenago eta 2004ko maiatzaren 15aren artean, ustiategi bat edo erreferentzia-epetan alokatua zegoen honen zati bat erosi dute,

alokatzea amaitzen den unetik urtebetera euren nekazaritzako jarduera hasi edo zabaltzeko asmoz.

Kasu hauetan, erreserba nazionalari ordainketa bakarreko eskubideak eskatu ahal izango dizkiote. Produktore hauek esleituko dizkieten eskubideak erreferentzia-zenbatekoaren eta alokatutako hektareen arteko zatiketaren emaitza izango dira.

2.5. *Produkzioaren birmoldaketa.*

Erreferentzia-epetan eta 2003ko irailaren 29a baino lehen, ordainketa bakarraren barneko hainbat erregimenetan produkzioa berbideratzeko programa nazionaletan parte hartu duten produktoreei dagokie.

Halaber, erreferentzia-epetan eta 2003ko irailaren 29a baino lehen, ustategia ordainketa bakarrean sartutako sektoretakoren batera eraldatu duten esne-produktoreak ere sartuko dituzte.

Euren eskubideak kalkulatzeko, erreferentzia-zenbatekoa eta 2006ko kanpainan ordainketa bakarreko eskaerarekin aitortutako hektarea-kopurua edo txikiagoa zatituko dituzte.

2.6. *Epai judizialak eta ekintza administratiboak:* Nekazari batek laguntza-eskubideak jasotzeko edo, agintari eskudunaren behin betiko administrazio-ekintza baten edo epai irmo baten ondorioz, eskubideen balioa handitzeko legitimazioa badu, epai edo ekintza administratiboak adieraziko dituen eskubideak eta balioa jasoko ditu.

3. Nekazaritzako jarduera erreferentzia-epetaren ondoren edo 2002. urtean (laguntza zuzenik jaso gabe urte horretan) hasi duten nekazari berriak.
4. Berregituratze-programen mende dauden nekazariak, bazterrean gelditzea ekiditeko.

2.3. ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK

Nekazari edo abeltzain bakoitzak jasoko dituen laguntzak "ordainketa-eskubideetan" oinarrituko dira. Eramaille-tituluen antzekoak dira. Kobratzeko, orokorrean, eskubideen kopuru bera izango duten hektarea-onargarrien kopurua mantentzen dutela justifikatu behar dute, baldintzazkotasun-araudia betez.

Erreferentzia-epean nekazariak jasotako ordainketa zuzenek ordainketa bakarreko eskubideak ematen dituzte. Eskubideak ere lor daitezke, ordaintzeko eskubideak berriz esleitzeko prozesua egin ondoren. Eskubideen kopuruak eta euren balioak ordainketa bakarra edo produktiotik aparte dagoen laguntzaren zatia zehaztuko dute.

2.3.1 ERREFERENTZIA EPEA

Oro har, 2000, 2001 eta 2002. urteei dagokiena da, hau da, 2000/2001, 2001/2002 eta 2002/2003 kanpainekin bat datorrena. Olibadirako 1999/2000 kanpaina ere sartzen da; beraz, 1999/2000, 2000/2001, 2001/2002 eta 2002/2003 kanpainak sartzen dira erreferentzia-epean. Ehun lihorako eta kalamurako, berriz, 2001 eta 2002. urteak dira erreferentzia-epea.

Bestalde, beste erreferentzia-epe bat kontuan hartzeko eragin dezaketen hainbat baldintza eman daitezke:

- Ezinbesteko kasuak.
- Jarduera erreferentzia-epean hastea.

Kasu guztietan, erreferentzia-epea aldatzeko eskaera nekazariak egin beharko du.

EZINBESTEKO KASUAK

Araudiaren arabera, nekazari batek, erreferentzia-epean, bere produkzioan ezinbesteko edo salbuespeneko arrazoiengatik kalteak baditu, erreferentzia-epea ezohiko gertakari hauek eragin ez dioten urtea edo urteak bakarrik kontuan hartzeko eska dezake, eta kalteak erreferentzia-epe osoan eman badira, 1997-1999 epea hartu ahal izango dute kontuan.

Halaber irizpide hau bera erabiliko dute, erreferentzia-epean, 2078/1992 (EE) Araudiaren eta 1257/1999 (EE) Araudiaren arabera, zuzeneko ordainketak jaso gabe ingurumen arloko konpromisoen pean egon diren nekazarien kasuan.

Gertakari horiek administrazioari jakinaraziko dizkiote dokumentazio normalizatu batean, kasu bakoitzak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuta (heriotza-ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, kaltetutako urteetako laguntza-eskaeren kopia, animalien baja adierazten duen albaitariaren ziurtagiria, animaliak hitzeko agintari eskudunaren ziurtagiria, eta abar).

Ezinbesteko kasuen artean, honako hauek aipatzen dituzte:

- Nekazaria hiltzea.
- Nekazariaren lanerako ezintasuna denbora luzerako.
- Ustiategiaren nekazaritza-lurak asko kaltetu dituen hondamendi natural larria.
- Ustiategiko abeltzaintzako lokalak nahi gabe hondatzea.
- Ustiategiko zenbait abere edo abere guztiak kaltetu dituen epizootia.

Ezinbesteko arrazoi hauetako batek kaltetutako nekazari edo abeltzainak banandutako ordainketa zuzen bakoitzerako erreferentzia-epea aldatzeko eskatu ahal izango du. Adibidez, behi-ustiategian epizootia izan bazuen, ohikoa ez den erreferentzia-epea erabiltzeko eskatu ahal izango du, baina zerealaren erreferentzia-epea aldatu gabe.

Hala ere, ordainketa zuzen baten barne ezingo du sektoreen arabera erreferentzia-epea aldatzeko eskatu. Adibidez, behi ume-hazleentzako erreferentzia-epea aldatzeko baina hilketarako ez aldatzeko ezingo du eskatu.

ERREFERENTZIA EPEAN JARDUERA HASTEA

Nekazari batek nekazaritza-jarduera erreferentzia-epean hasten bada, erreferentzia-epe bezala, nekazaritza-jardueran aritu den zatia hartzeko eskatu ahal izango du. Produktoreak egiaztatu beharko du aurreko bost urteetan ez duela bere aldetik inolako nekazaritza-jarduerarik burutu eta ez duela nekazaritza-jardueran ari zen pertsona juridikorik kontrolatu.

Erreferentzia-epean ustiategi bateko titularra hil edo bere zeregina utzi ondoren, nekazari bat ustiategi horretan hasten bada, nekazari honek bi aukera ditu: batetik, beste produktoreari legozkiokoen eskubideen arabera kalkulatzea; edo lanean jardun duen epea bakarrik kontuan hartuz kalkulatzea.

2.3.2 ERREFERENTZIA ZENBATEKOA

Gutxi gorabehera, erreferentzia-zenbatekoa erreferentzia-epearen barruan jasotako zuzeneko ordainketaren urteko batez bestekoa da.

Praktikan, erreferentzia-zenbateko hori laguntza-ildo bakoitzerako kalkulatu diren erreferentzia zenbatekoen batura da. Zenbateko guztien baturak ezingo du urte bakoitzerako finkatutako Maximo Nazionalako Muga gainditu (118/2005 (EE) Araudia). Hala gertatzen bada, banakako erreferentzia-zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira.

Hala ere, kontuan izan behar da erreferentzia-zenbatekoa zehazteko, laguntza-ildo bakoitzeko zati banandua hartzen dutela kontuan, eta ondoren, erreferentzia-zenbateko honetan oinarrituta (banandutako erreferentzia-zenbatekoa deitu beharko litzateke), egin beharreko deskontuak egin beharko zaizkiola (erreserba nazionala (% 3), eta abar).

Ordainketa bakarraren barruko linea bakoitzean, erreferentzia-zenbatekoa modu batera kalkulatu dute. Orokorrean, kalkuluak honela egiten dituzte:

- *Azaleraren arabera laguntzak*: erreferentzia-epean laguntza jasotzeko eskubidea duten hektareen batez bestekoa (azalera zehatza) eta 2002. urteko kanpainan ezarritako zenbakia biderkatuz.
- *Ganaduarentzako primak eta laguntza osagarriak*: erreferentzia-epean laguntza jaso duten animalien (animalia zehatzak) batez besteko kopurua eta kasu bakoitzean ezarritako azienda-buru bakoitzeko primen zenbatekoa biderkatuz.

Adierazi behar da erreferentzia-zenbatekoak kasu guztietan ez datozela bat produktoreek jasotako zenbatekoekin, 1782/2003 (EE) araudiko VII. eranskinean zehaztutako irizpideak aplikatzen dituztelako.

Erreferentzia-zenbatekoa kalkulatzeko, produkzio-unitateak hartuko dituzte kontuan (azalerak eta animaliak), erreferentzia-epean egindako administrazioaren kontroletan eta tokian bertan egindako kontroletan oinarrituta. Banaketa partziala ematen bada, linea bakoitzaren banaketa-mailaren arabera dagokion ehuneko aplikatu beharko dute.

Administrazioaren kontrolen edo kanpaina horien eskaerei aplikatu ahal izango litzaiekeen tokian bertako kontrolen ondoriozko zigorrak ez dituzte kontuan hartuko (debekatutako substantziak erabiltzen ez badituzte), ez eta ekobaldintzazkotasunaren ondoriozko zigorrak ere.

Kanpaina horietan aplikatutako estatuko mugak gainditu izanaren ondoriozko murriztapenak kontuan hartuko dituzte (adibidez, haragirako behi-aziendako priman eta hilketaren ondoriozko priman); halaber, eskubideen mugetara egokitu beharko dute (adibidez behi ume-hazlean).

2.3.3 AZALERA ZEHAZTUA EDO ERREFERENTZIA AZALERA

Zuzenean laguntzak jaso dituen, laguntzak jasan dituen (bazka-azalerak ganadu-primetan), edo laguntzez baliatu den produkzioa sortu duen (olibadia edo tabakoa) erreferentzia-eparen batez besteko azalera da.

Laguntza-ildo bakoitzerako irizpide espezifikoak hartuko dituzte kontuan, honako hauek azpimarratuz:

- Belarkien laborantzan, azalera zehatza edo baliozkotua hartuko dute kontuan.
- Zereal, olio-landare, landare proteazeo eta lur erretiratuei dagokienez, erreferentzia azalera 2000, 2001 eta 2002. urteetako azaleraren batez bestekoa da. Liho eta kalamurako, 2001 eta 2002. urteetako batez bestekoa erabiliko da.
- Tabakoaren kasuan, kontratatu edo aitortutako azalerak hartuko dituzte kontuan. Erreferentzia-azalera 2000, 2001 eta 2002. urteen batez bestekoa da.
- Bazka-azaleraren kasuan, azalera zehaztua edo baliozkotua hartuko dute kontuan. 2005. urteari dagokion erreferentzia-azalera izango da.
- Olibadirako, olio-azalera hartuko dute kontuan (Olio SIGen zehaztua). Erreferentzia-azalera, 1999/2000, 2000/2001, 2001/2002 eta 2002/2003 kanpainen batez bestekoaren bidez kalkulatu dute.

Azalera zehaztutzat joko dira laguntza emateko arauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenak, hau da, laguntzak ordaintzeko jarri dituztenak. Azalera zehaztuak ez du zertan azalera ordaindua izan behar. Hau da, nekazariak aitortutako azalerari, erreferentzia-denboraldian izandako kontrol administratibo eta tokian bertako egindako kontrolen ondoren eragingo zioten deskontuak aplikatuko dizkiote.

Halaber, laguntza-erregimenaren araberrako beste hainbat doikuntza ezarriko dizkiete; adibidez, belarkien laborantzan kontuan hartu behar dituzte, batetik, derrigorrez eta nahita erretiratzearen ondoriozko doikuntzak, eta, bestetik, estatu-mailan azalaren mugak gainditzeagatik deskontuak egin zituzten ala ez.

2.3.4 ESKUBIDEEN KOPURUA ETA MOTAK

Orokorrean, esleitutako eskubideen kopurua eta erreferentzia-azalera berdinak izango dira (2.3.3. puntuaren arabera kalkulatua). Beraz, azalera badago, eskubide bat hektarea baten edo bi hamarreko dituen zatiki baten baliokidea da.

Adibidez, produktu batek 9.125,50 €ko erreferentzia-zenbatekoa badu eta erreferentziako 46,50 hektarea baditu, 46,50 eskubide esleituko dizkiete.

Eskubide-motei dagokienean, oinarritzko bi daude, arruntak eta bereziak. Bakoitzak honako ezaugarri hauek ditu:

ESKUBIDE ARRUNTAK

- *Azaleran oinarritutako eskubideak:* erreferentzia-epean zuzeneko ordainketak jaso zituzten hektareen batez bestekoaren bidez kalkulatzeko dituzte (eskubide 1 = hektarea edo zatiki 1).
- *Erretiratze-eskubideak:* Erreferentzia-epean derrigorrezko erretiratzeagatik zuzeneko laguntza jaso zuten hektareen batez bestekoa izango da.

ESKUBIDE BEREZIAK

- *Lurrik gabeko eskubideak:* lurralde-oinarririk ez duten ustategietan, erreferentzia-zenbatekoa 5.000 €ko balioarekin zatituz kalkulatzeko da. Horrela, 5.000 € balioko hainbat eskubide eta zatidura lortuko dituzte, bai eta gainerakoaren berdina izango den eskubidea ere.
- *Lurrak dituztenen eskubideak, baina balio unitarioarekin, eskubide altuagatik:* Unitateko 5.000 € baino gehiagoko eskubideak kalkulatzeko zaizkien ustategietan, lurrak izan arren, lur horien balioa 5.000 €ra mugatuko da. Beraz, eskubide gehiago emango dizkiete.

2.3.5 ESKUBIDEEN BALIOA

Erreferentzia-zenbatekoaren eta eskubideen kopuruaren arteko zatiketaren emaitza da (orokorrean, ustategiko hektarea zehaztuak dira).

Era horretan kalkulaturako zenbatekoak behin-behinekoak dira, eta araudian aurreikusitako doikuntza finantzarioak hartu behar dira kontuan, hau da: muga finantzarioa, erreserba nazionalerako hornikuntza (% 3 arteko kenkaria), 1782/2003 (EE) araudiko 69. artikulua aplikatzea (gehenez % 10eko kenkaria, Espainian % 5ekoa izango dela dirudien arren) eta abar.

Kontuan hartutako eskubide-motaren arabera, eskubideen balioa honako hau da:

ESKUBIDE ARRUNTEN BALIOA

- *Azaleran oinarritutako eskubideak:* erreferentzia-epean laguntzak jasotzeko eskubidea zuen azalera zehatzak sortutako erreferentzia-zenbateko murriztua (dagozkion doikuntza finantzarioak erreferentzia-zenbatekora kendu ondoren), zati erreferentzia-epean laborantzako hektarea zehatzen batez besteko kopurua.
- *Erretiratze-eskubideak:* erreferentzia-epean zuzeneko ordainketak jaso zituzten derrigorrezko erretiratze-hektareek sortutako erreferentzia-zenbateko murriztua, zati erreferentzia-epean derrigorrezko erretiratze-hektarea zehatzen batez besteko kopurua.

ESKUBIDE BEREZIEN BALIOA

- *Lurrik gabeko eskubideak:* 5.000 € balio duten eskubideak, edo erreferentzia-zenbateko murriztua 5.000 €rekin zatitutako frakzioa aitortuko dizkiote.
- *Lurrak dituztenen Eskubideak baina eskubideko balio unitario altuarekin:* Erreferentzia-zenbateko murriztua, erreferentzia-epean aitortutako hektareen batez besteko kopuruarekin zatitua. Kopuru hori 5.000 € baino handiagoa bada, 5.000 € edo frakzio bakoitzeko eskubide bat izango du.

Erreferentzia-epean abeltzainak hektarearik ez duen eskubide berezien kasuan, laguntza osoa kobratzeko, abeltzainak honako hau egin behar du:

- edo laguntza-eskubideen kopuruaren hektarea-kopuru onargarria eskaini,
- edo ALUtan adierazitako erreferentzia-epean laguntzak jaso zituen animalien % 50 gutxienez izatea.

Adibidez produktore batek erreferentziako 75.000 € eta erreferentziako 10 hektarea baditu, diru-kopurua honela emango diote: 5.000 €/eskubideko 10 eskubide arrunt, eta 5.000 €/eskubideko 5 eskubide berezi.

2.3.6 ERREFERENTZIA ZENBATEKOA KALKULATZEA

Laguntza-ildo bakoitzak, guztizko Erreferentzia Zenbatekoari (EZ) zenbatekoak gehitzen dizkio. Laguntza-ildo bakoitzak bere ekarpena du. Laguntza-ildo bakoitzarentzako kalkulu-protokoloa ondoren adieraziko dugu: (erabilitako animaliak edo hektareak bat datoz zehaztutako animaliekin edo hektareekin).

1. Belarkien laborantzak

- 1.1 Belarkien laborantzak (orokorrak): Honen barnean sartzen dira zerealak, olio-landareak, landare proteazeoak, lihoa eta kalamua, eta produkzioko borondatezko erretiratze lurrak. % 75 banandua. Erreferentzia-zenbatekoa 2002ko laguntza-eskaeretan aplikatutako erregionalizazio-errendimenduarekin kalkulatzen dute.

$$(A1) \text{ EZ} = \frac{(\text{Ha } 2000 + \text{Ha } 2001 + \text{Ha } 2002) \times 63 \text{ €/tn} \times (\text{2002ko Erregionalizazio Errendimendua}) \times 0,75}{3}$$

1.2 Gari gogorraren gehigarria: % 75 banandua. Ez dituzte azalera baliozkotuak erabiltzen, gairiditzaetatik doitutako hektareak baizik.

$$(A2) \text{ EZ} = \frac{(\text{Ha } 2000 + \text{Ha } 2001 + \text{Ha } 2002) \times 285 \text{ €/ha} \times 0,75}{3}$$

2. Lekadunak:

2.1. Zalke: % 100 banandua

$$(B) \text{ EZ} = \frac{(\text{Ha } 2000 \times 175,02 \text{ €/Ha}) + (\text{Ha } 2001 \times 176,60 \text{ €/Ha}) + (\text{Ha } 2002 \times 150,52 \text{ €/Ha})}{3}$$

2.2. Dilistak eta txixirioak: % 100 banandua

$$(C) \text{ EZ} = \frac{(\text{Ha } 2000 + \text{Ha } 2001 + \text{Ha } 2002) \times 181,00 \text{ €/Ha}}{3}$$

3. **Derrigorrezko erretiratzea**: % 100 banandua. Erreferentzia-zenbatekoa 2002ko laguntza-eskaeretan aplikatutako erregionalizazio-errendimenduarekin kalkulatzen dute.

$$(D) \text{ EZ} = \frac{(\text{Ha } 2000 + \text{Ha } 2001 + \text{Ha } 2002) \times 63 \text{ €/tn} \times (\text{2002ko Erregionalizazio Errendimendua})}{3}$$

4. **Oliba-olioa**: % 95 banandua. Zehaztutako tonetan ez dituzte zigorrak kontuan hartu.

$$(E) \text{ EZ} = \frac{[(\text{Tm } 1999 \times 1.304 \text{ €}) + (\text{Tm } 2000 \times 939,1 \text{ €}) + (\text{Tm } 2001 \times 637,5 \text{ €}) + (\text{Tm } 2002 \times 919,20 \text{ €})] \times 0,95}{4}$$

Nekazariak 0,3 ha baino azalera txikiagoa aitortzen badu, ez dute 0,95ekin biderkatuko, 1,00ekin baizik (kasu hauetan, beraz, % 100 banandua dago)

5. Tabakoa: Erabilitako zenbatekoa kilogramo bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko haztatua da, barietate-talde guztientzako tabako gordinaren kantitate osoa kontuan hartuta. Laguntza jaso duten kilogramoak hartuko dituzte kontuan, hau da, ordaindu dituztenak.

5.1. 2006-2009: % 40 banandua.

$$(F) \text{ EZ} = \frac{(\text{Kg } 2000 + \text{Kg } 2001 + \text{Kg } 2002) \times \text{Batez besteko zenbatekoa Kg-ko} \times 0,40}{3}$$

5.2. 2010 - ...: % 100 banandua.

$$(F) \text{ EZ} = \frac{(\text{Kg } 2000 + \text{Kg } 2001 + \text{Kg } 2002) \times \text{Batez besteko zenbatekoa Kg-ko} \times 1,00}{3}$$

6. Behi-aziendarako abeltzaintzako primak eta laguntzak

6.1. Abelgorri arreatzako laguntza berezia: Zezenentzako primak 7 hilabete betetzen dituztenean, 2 hilabeteko erretentzioarekin. % 100 banandua.

$$(G) \text{ EZ} = \frac{[(2000\text{ko abel.} \times \text{MF2000}) + (2001\text{eko abel.} \times \text{MF2001}) + (2002\text{ko abel.} \times \text{MF2002})]}{3} \times \begin{array}{l} \text{Zezena} = 210 \text{ €} \\ \text{Idia} = 150 \text{ €} \end{array}$$

Urte bakoitzerako (2000, 2001 eta 2002) baliozkotutako abelburuak murrizketa-faktore batek zuzentzen ditu. Murrizketa-faktore horren balioa honako hau da:

- 2000. urteko murrizketa-faktorea (MF2000) = 0,65176639
- 2001. urteko murrizketa-faktorea (MF2001) = 0,69779140
- 2002. urteko murrizketa-faktorea (MF2002) = 0,58465333

6.2. Abelgorri helduak hiltzeagatiko prima (+8 hilabete) edo hilketa-prima (8 hilabete baino gehiagoko zekorrak). % 60 banandua.

$$(H) \text{ EZ} = \frac{[(2000\text{ko abel.}) + (2001\text{eko abel.} \times \text{MF2001}) + (2002\text{ko abel.} \times \text{MF2002})]}{3} \times 80 \text{ €} \times 0,60$$

2001 eta 2002. urteetan baliozkotutako abelburuak murrizketa-faktore batek zuzentzen ditu. Murrizketa-faktore horren balioa honako hau da:

- 2001. urteko murrizketa-faktorea (MF2001) = 0,97886291
- 2002. urteko murrizketa-faktorea (MF2002) = 0,87930288

6.3. Behi ume-hazleagatiko laguntza osagarria. % 100 banandua.

$$(I) \text{ EZ} = \frac{(2000\text{ko abel.} \times 2000\text{ko zenb.}) + (2001\text{eko abel.} \times 2001\text{eko zenb.}) + (2002\text{ko abel.} \times 2002\text{ko zenb.})}{3}$$

Laguntza hau ez dute Euskadin aplikatu

6.4. Behi-aziendagatiko ordainketa gehigarriaren zenbatekoa. % 100 banandua.

$$(J) \quad EZ = \frac{[(2000zenb. \times 2000 \text{ koef.}) + (2001zenb. \times 2001\text{koef.}) + (2002zenb. \times 2002\text{koef.})]}{3}$$

2000 zenbatekoa, 2001 zenbatekoa eta 2002 zenbatekoa urte bakoitzean ordaindutako zenbateko guztiak dira. Zenbateko horiek koefiziente batekin biderkatuko dira (aurrekontua 2002. urtekoa delako, bertan ordainketa gehigarriak handiagoak zirenez kopuru globala banakako kopuruetara egokitu behar izan zuten. Honako koefizienteak aplikatu behar dira:

- 2000. urteko koefizientea (Koeff2000) = 3,0090
- 2001. urteko koefizientea (Koeff2001) = 1,4977
- 2002. urteko koefizientea (Koeff2002) = 1

6.5. Zabalkunderako ordainketa. % 100 banandua. Erabilitako hektareak bazka-azalera bezala baliozkotutako hektareak dira.

$$(K) \quad EZ = (1) \times (ALU < 1,4) \times 100 \text{ €/abelburu}$$

$$(1) = \frac{(CabVN 00 + \begin{bmatrix} CabBMT 00 \times MF00 \\ CabBM1 00 \times MF00 \\ CabBM2 00 \times MF00 \end{bmatrix} + CabVN 01 + \begin{bmatrix} CabBMT 01 \times MF01 \\ CabBM1 01 \times MF01 \\ CabBM2 01 \times MF01 \end{bmatrix} + CabVN 02 + \begin{bmatrix} CabBMT 02 \times MF02 \\ CabBM1 02 \times MF02 \\ CabBM2 02 \times MF02 \end{bmatrix})}{3}$$

Esanahia: CabVN : Behi ume-hazleko abelburu-kopuru baliozkotua
 CabBMT: Zezen kopuru baliozkotua
 CabBM1: Lehen zatiko idien kopuru baliozkotua
 CabBM2: Bigarren zatiko idien kopuru baliozkotua

Murrizteko faktore horrek honako hau balio du:

- 2000. urteko murrizketa-faktorea (MF2000) = 0,65176639
- 2001. urteko murrizketa-faktorea (MF2001) = 0,69779140
- 2002. urteko murrizketa-faktorea (MF2002) = 0,58465333

7. **Ardi- eta ahutz-aziendatarako abeltzaintzako primak eta laguntzak**7.1 Ardi arinagatiko prima (Esnea). % 50 banandua. Esnea eta esnekiak saltzen dituzte.

$$(L) \quad EZ = \frac{(2000 + 2001 + 2002\text{ko ardi-kopurua})}{3} \times 16,80 \text{ €/abelburuko} \times 0,50$$

7.2. Ahuntzagatiko prima. % 50 banandua.

$$(M) \text{ EZ} = \frac{(2000 + 2001 + 2002\text{ko ahuntz-kopurua})}{3} \times 16,80 \text{ €/abelburuko} \times 0,50$$

7.3. Ardi astunagatiko prima (Haragia). % 50 banandua.

$$(N) \text{ EZ} = \frac{(2000 + 2001 + 2002\text{ko ardi-kopurua})}{3} \times 21,00 \text{ €/abelburuko} \times 0,50$$

7.4. Ardi- eta ahuntz-aziendako zona behartsuetako prima edo ardi- eta ahutz-aziendako prima gehigarria. % 50 banandua.

$$(O) \text{ EZ} = \frac{(2000 + 2001 + 2002\text{an ordainketa zuten abereak})}{3} \times 7,00 \text{ €/abelburuko} \times 0,50$$

7.5. Ardi- eta ahutz-aziendako prima gehigarria edo 2002 OVCP prima gehigarria. % 50 banandua.

$$(P) \text{ EZ} = 2002\text{ko ordainketa gehigarria} \times 1,00$$

8. Esne-prima

8.2. Esne-kuota. % 100 banandua.

$$(Q) \text{ EZ} = 24,49 \text{ €/Tm} \times 2006\text{ko martxoaren 31n eskura zeuden erreferentzia-kopuruak}$$

8.3. Esne-kuotaren prima berezia. % 100 banandua.

$$(R) \text{ EZ} = \text{Zenbatekoa} \text{ €/Tm} \times 2006\text{ko martxoaren 31n eskura zeuden erreferentzia-kopuruak}$$

ERREFERENTZIA ZENBATEKOAREN LABURPENA

Nekazari bakoitzari dagokion Ordainketa Bakarraren erreferentzia-zenbatekoa zehazteko, nekazari horrek jasotzen dituen laguntza-ildoen zenbatekoen batuketa egingo da.

AZALERAN OINARRITUTAKO ESKUBIDEEN ERREFERENTZIA ZENBATEKOA	= (A1)+(A2)+(B)+(C)+(E)+(F)+(G)+(H)+(I)+(J)+(K)+(L)+(M)+(N)+(O)+(P)+(Q)+(R)
---	--

ERRETIRATZE ESKUBIDEEN ERREFERENTZIA ZENBATEKOA	=(D)
--	-------------

Gogoan izan erreferentzia-zenbateko honen gainean (erreferentzia-zenbateko banandua hain zuzen ere) dagozkion deskontuak egingo dituztela.

ESKUBIDEEN BALIOAREN LABURPENA

AZALERAN OINARRITURIKO ESKUBIDEEN ZENBATEKO UNITARIOA	=	AZALERAN OINARRITURIKO ESKUBIDEEN ERREFERENTZIA	—	AZALERAN OINARRITURIKO ESKUBIDEEN KOPURUA
--	----------	--	----------	--

ERRETIRATZEAN OINARRITURIKO ESKUBIDEEN ZENBATEKO UNITARIOA	=	ERRETIRATZE ESKUBIDEEN ERREFERENTZIA ZENBATEKOA	—	ERRETIRATZE ESKUBIDEEN KOPURUA
---	----------	--	----------	---------------------------------------

2.3.7 ESKUBIDEAK AKTIBATZEA

2006ko ordainketa bakarreko eskaera-data arte, behin-behinekoak dira nekazariak jakinarazitako ordainketa bakarreko eskubideak. Eskubideen behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko, nekazariak eskubideak ordainketa bakarreko erregimena aplikatzeko lehen urtean aktibatu beharko ditu (2006. urtea).

Eskubideak automatikoki aktibatuko dituzte, nekazariak 2006ko kanpainan ordainketa bakarreko eskaera aurkeztean eta hala adierazten duenean.

2006ko kanpainarako ezinbestean ordainketa bakarreko eskaera aurkeztu ezin duten produktoreek ordainketa bakarreko erregimenean parte-hartzeko eta bere eskubideak gordetzeko eskatu beharko dute, gertatu diren ezinbesteko arrazoiak frogatu ondoren. Bestela, behin-behineko esleitutako eskubideak erreserba nazionalera bideratuko dira.

Ordainketa bakarreko eskubideak aktibatzeko, ez da zertan ordainketa bakarreko eskaerarekin eskubideen kopuruaren baliokide izango den hektarea-kopuru bat aitortu. Hau da, ez da beharrezkoa une horretan lurrik izatea, kasu honetan laguntzarik jasoko ez duten arren. Eskaera honen lehen zatia (ordainketa bakarreko erregimenean sartzeko eskaera) betetzen ez duen nekazariari, ez dizkiote ordainketa bakarreko eskubideak esleituko.

Produktore bati 10 eskubide esleitu badizkiote, ordainketa bakarreko eskaera aurkeztuz eskubide guztiak aktibatzen ditu, **0,3 hektareako azalera (aitortu daitekeen gutxieneko balioa)** aitortu badu ere. Dena den, ezingo dizkio lurrik gabeko bere eskubideak beste produktore bati transferitu, gutxienez bere eskubideen % 80 erabili ez badu.

2.3.8 ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Nekazari bati esleitutako eskubideen gutxiengoa erabiltzeko obligazioa du, bestela kendu eta erreserba nazionalaren esku geratuko dira.

Gutxienez zenbat erabili behar dituen zehazteko, berezko esleipen-eskubideak edo erreserba nazionaletik jasotakoak diren jakin behar da. Gutxienez erabili behar dituztenak:

- *Berezko esleipeneko eskubideak (ez erreserba nazionalekoak):* nekazariak galdu egingo ditu eta erreserba nazionalaren esku geratuko dira 3 urte jarraian erabiltzen ez dituen ordainketa bakarreko eskubideak. 3 urte jarraian ez erabili arren ez dituzte ordainketa bakarreko eskubideak galduko, ezinbesteko arrazoi batengatik erabili ez dituztenean.
- *Erreserba nazionaletik jasotako eskubideak:* Esleitu eta lehen bost urteetan, produktoreak eskubide guztiak erabili beharko ditu. Denbora horretan erabiltzen ez dituen eskubideak kanpaina horretan bertan kenduko dizkiote.

Eskubide bat erabiltzen ari direla ulertuko da eskaera egin eta eskubide horrengatik ordaindu dutenean.

Bestalde, eskubideak erabiltzeko honako irizpide hauek hartu behar dira kontuan:

- Produktore batek, aldi berean, berezko esleipeneko eskubideak eta erreserba nazionaletik jasotako eskubideak izan ditzake. Eskubide bakoitzari dagokion gutxienekoa aplikatuko diote.
- Erreserba nazionalaren esleipenaren bidez produktore batek bere eskubideen balioa % 20 baino gehiago handitu badu, bere eskubide guztiak erreserba nazionalaren eskubide bezala hartuko dira.

Adibidea: Produktore batek berezko esleipeneko (ez erreserba nazionaleko) 100 eskubide ditu. Lehen urtean 60 eskubide erabiltzen ditu, bigarren urtean 90 eta hirugarren urtean 50. Beraz, eskubide-mota honetarako kontuan hartutako epean (3 urte) une batean ere erabili ez dituen 10 eskubideak kenduko dizkiote.

Adibidea: Produktore batek berezko esleipeneko 10 eskubide eta erreserba nazionaletik hartutako 4 ditu. Lehen urtean 11 eskubide erabiltzen ditu; kasu horretan 3 eskubide erreserba nazionalera pasatuko dira. Bigarren urtean 10 erabiltzen dituzenez, eskubide 1 erreserba nazionalera pasatuko da. Hirugarren urtean 9 eskubide erabiltzen ditu, baina beste eskubideak ez dira erreserba nazionalera pasatzen berezko esleipeneko eskubideak direlako, 3 urteko epea amaitu delako eta eskubide guztiak erabili dituelako. Laugarren urtean, 3 urteko bigarren epea hasiko da.

2.3.9 ESKUBIDE BEREZIEN BALDINTZAK

Ordainketa bakarreko eskubide bereziak gauzatu eta kobratu daitezke, baldin eta ALU_n adierazitako erreferentzia-epean zuen nekazaritza-jardueraren % 50 gutxienez mantentzen badu. (1782/2003 (EE) Araudiko 49. art.)

Eskubide horiek ere hektarea onargarri batekin batera eska daitezke. Hala ere, hektarea batekin batera eskatzen duten unean, eskubide bereziak izateari utziko diote eta ezingo dute propietate hori berreskuratu. (795/2004 (EE) Araudiko 30. art.)

Honako ordainketa hauek eskubide bereziak eragiten dituzte:

- Hilketagatiko prima.
- Prima berezia eta behi ume-hazlea, laguntza jasotzeko eskubidearekin 15 ALUak gainditzen ez dituelako eta zabalkundea ez eskatzeagatik bazka-azalerarik ez dagoenean.
- Aurrekoak osatzeko ordainketa gehigarriak.
- Ardi- eta behi-azienden laguntzak.
- 2006tik aurrera, esne-primaren zenbatekoak eta ordainketa gehigarriak.

Eskubide bereziak kobratzeko eskatutako gutxieneko nekazaritzako jardueraren % 50 kalkulatzeko, eskubide bereziak sortu dituen ordainketaren bat baimendu duten animalien hiru urteko batez besteko zenbakiari ondorengo bihurketa-taula hau aplikatuko zaio:

ANIMALIA MOTA	ALU
- 24 hilabete baino gehiagoko bigantxak eta abelgorri arrak , eta behi ume-hazleak.	1,0 ALU
- 6 eta 24 hilabete bitarteko bigantxak eta abelgorri arrak.	0,6 ALU
- 6 hilabete baino gutxiagoko abelgorri arrak eta emeak.	0,20 ALU
- Ardiak.	0,15 ALU
- Ahuntzak.	0,15ALU
- Esne-behietan, erreferentziako zenbatekoa 4.650 kilorekin zatitzen da eta ALUak lortzen dira.	Erreferentziako 4.650 Kg = ALU 1

Esne-primako laguntzen eta ordainketa gehigarrien kasuan, laguntzak kobratzeko gutxieneko % 50 mantentzeko beharrezko ALUak kalkulatzeko, 2006ko martxoaren 31n eskura duten kuota, kalkulatzeko unean aplika daitekeen araudian (1 ALU = 4.650 Kg.) adierazitako esne-errendimenduarekin edo, batez bestekoaren gaintik badago, produktorearen esne-errendimenduarekin zatituko da.

Erreferentzia-epean nekazaritza-jardueraren % 50 mantentzeko behar diren ALUak eskubideen arabera kalkulaten dira. Eskubide horiek eskuratzeko, laguntza berezietarako baimena eskatzen dute.

Abereak zainduz eskubide bereziak erabili nahi dituzten nekazariak baimen espezifikoa eskatu beharko dute. Baimenean nekazariari, eskubideak kobratzeko gutxieneko ALUak adieraziko dizkiote.

Nekazari batek eskubide berezien zati bat ematen badu, geratuko zaion zatiak eskubide bereziak izaten jarraituko du. Kasu honetan nekazariari, geratuko zaizkion eskubideak kobratzeko izan behar dituen gutxieneko ALUak kalkulatuko dizkiote berriz.

Eskubide berezien zati bat emateko kasuan, emandako eskubideek eskubide bereziak izateari utziko diote, eskubide arruntak izatera pasatuz (beraz, lurrarekin burutu beharko dira). Eskubide berezi guztiak ematen badituzte bakarrik jarraituko dute bereziak izaten.

2.4. ORDAINKETA BAKARREKO ESKAERA

2.4.1. LAGUNTZA ESKUBIDEAK ORDAINDU ETA ERABILTZEA

Orokorrean, edozein eskubide kobratzeko, hektarea onargarriarekin batera eskatu behar dute, hau da, dagokion laguntza jasotzeko, eskubide bakoitzarekin hektarea onargarri bat eman behar da.

Eskubide berezien kasuan –hektarea onargarri batekin batera eskatu gabe erabili ahal izateko ezaugarria dute– kobratzeko, erreferentzia-epean zuen ALUren (Azienda Larri Unitatea) % 50 gorde behar da gutxienez (1782/2003 (EE) Araudiaren 49.2. art.).

Erretiratze-eskubideak edozein laguntza-eskubide baino lehen eskatu beharko dituzte (1782/2003 (EE) Araudiaren 54.6. art.).

Hainbat eskubide-mota dituztenean eta guztiak erabiltzean, urte bakoitzean erabiltzen dituzten eskubideak identifikatu beharko dira, horretan oinarrituta, berezko esleipen-eskubideetarako ezarritako hiru urteko epean erabili ote duten egiaztatuko baita; izan ere, ez badituzte erabiltzen erreserba nazionalera pasatuko dira (erreserba nazionaletik jasotako eskubideen kasuan, esleitu eta lehen bost urteetan kanpaina bakoitzean erabili beharko dituzte).

Guztira 0,3 hektarea (aitortu daitekeen gutxieneko balioa) baino gutxiago dituzten eskaerak ez dituzte onartuko. Gai horrek ez du eraginik ALUak aitortzen dituzten eskubide berezien kasuan.

Amaitzeko, aitortutako lursailak aitortzen dituen nekazariak erabili ahal izango ditu, estatu kide bakoitzak ezarri beharreko datatik hasi eta gutxienez 10 hilabetez, baina beti ere eskatzen duten dataren aurreko urte naturaleko irailaren 1a baino lehen.

2.4.2. HEKTAREA ONARGARRIAK

Ustiategiko laborantza-lurrak eta larre iraunkorrak kontuan hartzen dira hektarea onargarriak zehazteko; kanpoan gelditzen dira laborantza iraunkorreko lurrak, basoak, baratzeak, patata sailak edo nekazaritzaz bestelako jardueretarako erabiltzen direnak. Bertan sartuko dira, era berean, lupuluz landatutako azalerak edo lugorriak, edo 1998ko maiatzaren 1a baino lehen landatutako olibondoek edo lehen zeudenen orde berriak jarri eta informazio geografikoko sisteman (SIG oleícola) erregistratutako olibondo berriek hartutako azalerak.

Nekazariak nahi badu, azalera horiek landatzeko erabil ditzake. Hala egiten badu, ez du zertan eskubidearen jatorrizko landaketarekin loturarik izan behar. Bestalde, berdin dio azalera hauek lehorreko sailak edo sail ureztatuak izatea. Gainera, ez dute zerikusirik ustiategi-sistemarekin.

Beraz, aitortutako azalerek, erabiltzeko eta onargarritasuneko baldintza zehatzak bete behar dituzte hektarea onargarri bezala sailkatzeko.

Ordainketa bakarreko eskubideetarako onargarritasun-baldintzak

Azalerek alde zuzen aurretik honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

ONARTZEN DIRA	EZ DIRA ONARTZEN
<u>Eskubide arrunt eta berezietarako:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Landatzeko lurrak (lupulua eta lugorria barne) - Larre iraunkorrak. - 1988/05/01 baino lehen landatutako olibondoak. 	<u>Eskubide arrunt eta berezietarako :</u> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritzakoak ez diren jarduerekin lotuak. - Basoak. - Laborantza iraunkorrak (1988/05/01 baino lehen landatutako olibondoak izan ezik)
<u>Erretiratze-eskubideetarako:</u> <ul style="list-style-type: none"> - 2003ko eskaera-epea amaitu aurretik laborantzakoak izan ziren lurrak. 	<u>Erretiratze-eskubideetarako:</u> <ul style="list-style-type: none"> - 2003ko eskaera-epea amaitu aurretik honako erabilera hauek zituzten lurrak: <ul style="list-style-type: none"> o Nekazaritzakoak ez diren jarduerak. o Basoak. o Laborantza iraunkorrak. o Larre iraunkorrak.

Hektareak erabiltzeko baldintzak

Ordainketa bakarreko erregimenaren kontzeptu gisa (aurreko onargarritasun-baldintzak betetzeaz gain), uneko kanpainak aitortutako azalerek honako erabilera hauek izan ditzakete:

ERABIL DAITEZKE	EZIN DIRA ERABILI
<u>Eskubide arrunt eta bereziekin lotuta:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritzako edozein jarduera. - Baldintzazkotasuneko baldintzak bete beharko dituzte (20/2005 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzarena, baldintzazkotasuna aplikatzeari buruzkoa). Betetzen ez badute, laguntzetan zigorrak jaso ditzakete. 	<u>Eskubide arrunt eta bereziekin lotuta:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Laborantza iraunkorrak (olibondoa izan ezik) - Frutak, barazkiak eta hauen aldagaiak. - Fekularako ez den patata.
<u>Erretiratze-eskubideekin lotuta :</u> <ul style="list-style-type: none"> - Ezingo dituzte nekazaritzarako erabili, edo ezingo dute ezer landatu saltzeko asmoz –beti ere produkzio osoa ekologikoa ez bada eta horrela adierazitako produktuak ez baditu–, edo gizakiek edo animaliek kontsumitzeko ez diren produktuak fabrikatzeko erabiltzen badituzte (jateko ez direnak). - Biomasa produzitzeko hainbat urtetako laborantzak ezartzea. Horretarako, ezartzeko kostuaren % 50 arte jaso ahal izango du. - Erretiratutako lurrek, beranduen urtarrilaren 15ean hasi eta goizen abuztuaren 31n amaituko den epean horrela egon beharko dute. Abuztuaren 31 baino lehen, uztailaren 15a baino lehen edo ekainaren 15a baino lehen erein ahal izango dute, baldintzen arabera. - Landare-estalkiak ezingo dituzte haziak produzitzeko edo nekazaritzako helburuarekin erabili abuztuaren 15a baino lehen. Halaber, laborantza saldu nahi badute, ezingo dute hurrengo urtarrilaren 15a baino lehen erabili. - Nekazaritza eta ingurumeneko baldintza egokitan zaindu behar dituzte. - Txandaketak egin ahal izango dituzte. 	<u>Erretiratze-eskubideekin lotuta :</u> <ul style="list-style-type: none"> - Baimendutako erabilera edo laborantzarako bakarrik erabili ahal izango dira (ikus ezkerreko laukia).

2.4.3. ORDAINKETA BAKARREKO ESKAERAK EGITEKO KALKULATUTAKO ZENBATEKOA

Ordainketa bakarreko laguntza likidatzeko garaian, kontuan hartu beharrekoa: nekazariak dituen eskubideak, hektarea onargarrien kopuru bera edo gutxienez erreferentzia-epean produktoreak zituen ALUen % 50, eskubide berezien kasuan.

Ordainketa bakarreko eskaerari dagokion zenbatekoa honako parametro hauek kontuan hartuta kalkulatuko dute:

- Esleitutako eskubideen kopurua eta hauen balioa.
- Administrazioak egindako eta tokian bertan egindako kontrolak gainditu dituzten aitortutako hektarea onargarriak.
- Aitortutako hektareak eta egiaztatutakoak bat ez etortzeagatik ezar daitezkeen zigorrak.
- Diziplina finantzarioa aplikatzeak eragindako murriztapenak (2007. urtetik aurrera).
- Modulazioa aplikatzea.
- Atxikipen gehigarri nazionala aplikatzea (69. artikulua).
- Erreserba nazionalerako kentzea.
- Baldintzazkotasuneko irizpideak ez betetzeagatik ezar dakizkiokeen zigorrak.
- Maximo nazionalako mugak.

Adibidez: Produktore bati 200 euroko 20 eskubide esleitu badizkiote eta ordainketa bakarreko eskaeran 16 hektarea aitortzen baditu, aitortutako hektareen arabera ordainduko du. Hau da, 16 ha x 200 €/ha = 3.200 €

2.5. ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK LORTU, GALDU, TRANSMITITU ETA ALDATZEA

2.5.1. ERRESERBA NAZIONALA

Europar Batasuneko araudiaren arabera, Estatuak diru-erreserba izan behar du, honako egoera hauetan dauden nekazariei ordainketa bakarreko eskubideak esleitu ahal izateko:

- Jarduerak 2002ko abenduaren 31 ondoren hasiko dituztenei (edo 2002. urtean bertan, baina urte horretako erreferentzia-zenbatekorik izan gabe).
- Berregituratu edo garapeneko programa publikoei lotutako zonetako nekazariei, lurak uztea saihesteko edo zona hauetan desabantailak konpentsatzeko.
- Berezi bezala sailkatutako egoeretako batean dauden nekazariak (ikus 2.2. Ordainketa bakarreko eskubideen onuradunak atala, eta Erreserba nazionalako eskubideak berriz esleitzearen ondoriozko onuradunak azpiatala).

Erreserba nazionalako eskubideen esleipena, nekazarien arteko tratu-berdintasuna bermatzeko, eta merkatua eta lehia faltsutzea saihesteko egiten dute.

Erreserba nazionalako eskubideak ezin dituzte 5 urtez laga, ondorengotzan ez bada, eta bost urte horietan urtero erabili gabeko erreserbako edozein eskubide erreserba nazionalaren esku geratuko da berehala.

2.5.2. ERRESERBA NAZIONALA EZARTZEA

Erreserba monetarioa da, hau da, euroz osatua dago eta ez eskubidez. Horrenbestez, ez du eskubide berezirik ez eta erretiratzeko eskubiderik ere; beraz, erreserbatik esleitutako eskubideak ez dira horrelakoak izango.

Erreserba nazionala hornitzeko hainbat mekanismo daude. Zenbait erreserba nazionala sortzeko unean ezartzen dira eta besteak ondorengo faseetan:

- Zati egokituari dagozkion murriztapenak erreferentzia-zenbatekoari aplikatu ondoren, produktu guztien erreferentzia zenbatekoei aplikatzen dieten murriztapena (gehienez % 3).
- Behin-behineko eskubideak aplikatuko ez dituzten produktoreen erreferentzia-zenbatekoen batura.
- Hiru urteko epean erabili gabeko eskubideak.
- Transferentzien ondoriozko bidesariak.
- Esleitu eta hurrengo bost urteetan urtero erabiliko ez dituzten esleitutako erreserba nazionalako eskubideak.
- Maximo nazionalako mugaren eta nekazariei emandako erreferentzia-zenbatekoen baturaren arteko diferentzia (muga nazionala, erreferentzia-zenbatekoen batura baino handiagoa bada), erreserba nazional hau hornitzeko murriztapena egin aurretik.
- "Ezusteko mozkinaren" ondorioz aplikatutako murriztapenak.
- Hainbat produktoreri transferitu ahal izateko, produktoreek erreserba nazionalari "nahita" itzultitako eskubideak.

Adibidea. Nekazari bati 100 eskubide esleitu dizkiote eta ordainketa bakarra 70 eskubiderengatik eskatzen du. Gutxienean % 80 erabili ez duelako bere eskubideak (lurrik gabe) saldu nahi baditu, 30 eskubide itzuli beharko dizkio erreserba nazionalari. Une horretatik aurrera bere eskubideak saldu ahal izango ditu.

Ezusteko mozkina

Erreferentzia-epearen eta 2004ko maiatzaren 15aren artean, ustiategi osoa edo zati bat 6 urte edo gehiagorako saldu edo alokatu zuten, eta salmenta edo alokatzea egin eta urte beteko epean ustiategia, saldutako zatia edo alokatutako zatia ordezkatu ez zuten pertsonen ezarriko diete ezusteko mozkineko klausula.

Hori gertatzen denean, eskubideak esleitzuz, nekazariak ezohiko mozkina lortzen duela ulertzen dute, eta horregatik, saltzailearen edo alokatzailearen erreferentzia-zenbatekoei honako atxikipen hauek ezartzen dizkiete:

- 2004ko maiatzaren 15a baino lehen salduz gero, saldutako hektareen eta produkzio-unitateen zenbatekoaren % 90 arte.
- 6 urte edo gehiagorako alokatuz gero, alokatutako hektareen eta produkzio-unitateen erreferentzia-zenbatekoaren % 50 arte, gehi adierazitakoaz gain alokatutako urte bakoitzeko % 5 gehiago, % 20ra heldu arte gehienez.

Klausula hau ez dute gauzatuko, salmenta edo alokatzeko unetik hasi eta urte beteko epean, edo edozein kasutan 2004ko apirilaren 30a baino lehen, saldutako ustiapenaren zatia ordezkatu badu saltzaileak edo alokatzaileak. Klausula hori ere ez dute gauzatuko nekazariak eskubideak kontratu batean laga baditu edo kontratua 2004ko maiatzaren 15a baino lehen aldatu badu, edo nekazariak, salmentaren edo alokatzearen prezioa ustiapenaren balioarekin bat datorrela, edo zati baten lagapenaren kasuan, laguntza-eskubiderik gabeko ustiapenaren zati baten balioarekin bat datorrela egiaztatzen badu.

2.5.3. ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK TRANSMITITZEA

Eskubideak saldu edo alokatu ahal izango diren ondasunak dira. Horretarako hainbat baldintza bete beharko dituzte.

Eskubideak transmititu (saldu edo alokatu) ahal izango dira nekazariari behin betiko esleitu dizkietenean, hots, 2006. urtean behin-behineko eskubideak eskatu eta kobratu, eta behin betiko esleitzen diotela Administrazioak adierazi ondoren.

Saldu edo alokatzeko ez da Administrazioaren berariazko baimenik behar, nahikoa da transakzioaren berri ematea, bi nekazarien eskubide-esleipenean kontuan hartzeko.

Sortu ziren estatu berean kokatutako beste nekazari bati laga ahal izango dizkiete laguntza-eskubideak, inter vivos ondorengotzako edo mortis causako kasuak salbuetsita; eta kasu hauetan ere, sortu ziren estatu kidean bakarrik erabili ahal izango dituzte. Eskubideak lagatzeko kasuan egingo dituzten atxikipenak kontuan hartu gabe, eskubideak erabiltzeko ez dute mugarik izango sortu diren Autonomia Erkidegoan.

Ondorengo ezaugarriak kontuan hartuta, eskubideak salerosteko hainbat modu daude:

- Iraupena: behin betikoa (salmenta) edo aldi baterako (alokatzea).
- Eskubideekin batera lurra dauden ala ez.

Eskubideak transmititzeko honako muga hauek daude:

- Produktorearen berezko ezaugarriak.
- Eskubideen transmisio-motak.

- *Produktorearen berezko ezaugarriek jarritako mugak:* Ezinbesteko kasuak ematen ez badira, nekazari batek ezingo dizkio beste produktore bati bere eskubideak saldu edo alokatu ondorengo baldintza hauek eman arte:
 - Urte berean gutxienez esleitutako eskubideen % 80 erabili dituzten arte, edo saltzaileak bere borondatez erreserba nazionalari, lehen urtean erabili ez dituen eskubide guztiak eman arte.
 - Erreserba nazionalak duela 5 urte edo gehiago eskubideak esleitu badizkio.

- *Eskubideen transmisio-motaren mugak.*
 - Eskubideak alokatzea: eskubideak alokatu ahal izateko, eskubideen kopurua adina hektarea onargarri behar dira.
 - Eskubideen salmenta: lurrarekin edo gabe joan daitezke.

2006ko ordainketa bakarreko eskaera-data amaitu aurretik egindako ustiatgien salmentak lurrei lotuta dauden eskubideen lagapenak izango dira salmenten ondoriozko atxikimenduen kasuan, eta salerosketako kontratuan honako hau adieraziko duen klausula dagoenean: ustiategiari edo lagatako zatiari dagozkien ordainketa bakarreko azalera eta erreferentzia-zenbatekoak lagatzen dituzte. Klausula hau, erosteko unean edo ondoren, aldaketa baten bidez, sartu ahal izango dute.

Eskubide bereziak saldu edo alokatuz gero, eskubide hauen ezaugarri espezifikoak ez zaizkio nekazari hartzaileari transferituko, eta honi eskubide arruntak errespetatuko zaizkio, eskubide berezi guztiak saldu edo alokatzen ez baditu.

Erretiratze-eskubideak emanez gero, emandako eskubideek erretiratze-eskubidea izaten jarraituko dute, eta, beraz, erabiltzeko baldintzak izaten jarraituko dute.

ESKUBIDEEN TRANSFERENTZIEN GAINEAN EGIN BEHARREKO ATXIKIPENAK:

Eskubideen salmentek atxikipenak (ordainsariak) izango dituzte. Atxikipenak diferenteak izango dira salmenta lurrekin edo lurrik gabe egiten badituzte. Egin beharreko kenkariak oraindik zehaztu ez badituzte ere, honako hauek izan daitezke:

- Laguntza-eskubideen salmenta lurrik gabe: Ordainketa Bakarra ezartzeko lehen hiru urteetan % 50eko atxikipena, eta ondoren % 30ekoa.
- Eskubideen salmenta lurrekin: % 5eko atxikipena.
- Eskubideen salmenta ustiategi osoarekin: % 0ko atxikipena.
- Ustiategia hasten duten nekazari berriei eskubideak saltzea: % 0ko atxikipena.

Eskubideak finkatuak daudenean, 2006. urtearen ondoren ordainketa bakarreko eskubideak saltzen badituzte, salmentaren xede diren eskubideek balio zehatza izango dute. Horrenbestez, nekazari batek balio diferentetako eskubideak izango ditu.

Aplikatzeko lehen urtean, hau da, 2006. urtean, ordainketa bakarreko erregimenak babestuta eskaera-data amaitu aurretik alokatutako ordainketa bakarreko eskubideak aktibatze honako hau egin behar dute: eskubideen jabeak eskubideak aktibatu behar ditu, hau da, 2006ko laguntza-eskaeraren lehen zatia burutu beharko du (alokatze kontratuaren kopia bat erantsi beharko du) eta eskubideen alokatzaileak ordainketa bakarreko eskaera egin beharko du, hau da, 2006ko laguntza-eskaeraren bigarren zatia egin beharko du (alokatze kontratuaren kopia erantsi beharko du).

3. AZTERKETA SEKTORIALA. ESKUBIDEEN KALKULUA, ORDAINKETA BAKARRERAKO KALKULU OINARRIAK ETA ORDAINKETA BAKARRA OSATZEKO LAGUNTZAK. ADIBIDEAK.

3.1. BELARKI LABORANTZAK, OLIBADIA ETA BAZKA AZALERA

ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA ESKUBIDEAK ZEHAZTEA

Belarki-laboretarako erabilitako azalerek ordainketa bakarrek eskubideak burutzeko balio dute, eta gainera, laborantzek laguntza egokitua dute.

Nekazari bakoitzari hektarea bakoitzeko eskubide bat aitortzen diote (erreferentzia-epan dirua jaso duten hektarea-kopuruaren edo zatikiaren arabera –egia esan baliozkotuak dira– bere baliokidea lortzen da eskubideen kopuruan). Bi eskubide-mota lor ditzakegu:

- *Azaleran oinarrituriko eskubideak:* erreferentzia-epan laguntzak jasotzeko eskubidea zuen azalera zehatzak sortutako erreferentzia-zenbateko murriztua (erreferentzia-zenbatekoari, dagozkion doikuntza finantzarioak kendu ondoren), zati erreferentzia-epan laborantzako hektarea zehatzen batez besteko kopurua. Bertan sartzen dira olibadiaren azalera, halakorik balego, eta bazka-azalera, abeltzaintzako primen bidezko ustategien kasuan.
- *Erretiratze-eskubideak:* Erreferentzia-epan zuzeneko laguntza derrigorrez erretiratzeko hektareetatik sortutako erreferentzia-zenbateko murriztua, erreferentzia-epan derrigorrezko erretiratzeagatik aitortutako hektareen batez besteko kopuruarekin zatitua.

Erreferentzia-zenbateko banandua kalkulatzeko, honako formula hauek erabiltzen dira (ikus 2.3.6. idatz-zatia):

LABOREEN ARABERAKO LAGUNTZAK	
(A1) BELARKI LABOREAK (%75 banandua)	= $\frac{(Ha\ 2000 + Ha\ 2001 + Ha\ 2002) \times 63\ \text{€/tn} \times (2002\text{ko Erregionalizazio Errendimendua}) \times 0,75}{3}$
(A2) GARI GOGORRAREN GEHIGARRIA (%75 banandua)	= $\frac{(Ha\ 2000 + Ha\ 2001 + Ha\ 2002) \times 285\ \text{€/ha} \times 0,75}{3}$
(B) LEKADUNAK : Zalkea (%100 banandua)	= $\frac{(Ha\ 2000 \times 175,02\ \text{€/Ha}) + (Ha\ 2001 \times 176,60\ \text{€/Ha}) + (Ha\ 2002 \times 150,52\ \text{€/Ha})}{3}$
(C) LEKADUNAK: Dilistak, txitxirioak (% 100 banandua)	= $\frac{(Ha\ 2000 + Ha\ 2001 + Ha\ 2002) \times 181,00\ \text{€/Ha}}{3}$
(D) DERRIGORREZKO ERRETIRATZEA (%100 banandua)	= $\frac{(Ha\ 2000 + Ha\ 2001 + Ha\ 2002) \times 63\ \text{€/tn} \times (2002\text{ko Erregionalizazio Errendimendua})}{3}$
(E) OLIBA OLIOA (%95 banandua)	= $\frac{[(Tm\ 1999 \times 1.304\ \text{€}) + (Tm\ 2000 \times 939,1\ \text{€}) + (Tm\ 2001 \times 637,5\ \text{€}) + (Tm\ 2002 \times 919,20\ \text{€})]}{4} \times$
(F1) TABAKOA (2006-2009) (%40 banandua)	= $\frac{(Kg\ 2000 + Kg\ 2001 + Kg\ 2002) \times Kg\text{-ko batez besteko zenb.} \times 0,40}{3}$
(F2) TABAKOA (2010-...) (%100 banandua)	= $\frac{(Kg\ 2000 + Kg\ 2001 + Kg\ 2002) \times Kg\text{-ko batez besteko zenb.} \times 1,00}{3}$

Murrizketako erreferentzia-zenbatekoa, erreferentzia-zenbateko bananduan oinarrituta lortzen da; zenbateko honi dagozkion kenkariak deskontatuko dizkiote (adibidez, % 3 erreserba nazionalerako).

Derrigorrezko erretiratzeko eta laborantza-azalerako erreferentzia-zenbateko murriztua bereizita kalkulatuko dituzte. Halaber, derrigorrez erretiratu izanaren laguntza-eskubideak beste edozein baino lehen erabiliko dituztela gogoratzen dute.

Azkenik, eskubide bakoitzaren balioa erreferentzia-zenbatekoaren eta eskubideen kopuruaren arteko zatiketaren emaitza da. Hiru hamartarrekin kalkulatuko dituzte eta bi hamartarretan biribilduko dituzte.

ORDAINKETA BAKARRA OSATZEKO AZALAREN ONDORIOZKO LAGUNTZAK

- Belarkien laborantzak

63 €/tona balioari eta 0,25 koefizienteari (% 25en akoplamendua) dagozkien erregionalizazio-errendimendua ezarritako belarkien eta lugorrien laborantza jakinak (zerealak, olio-landareak, ehun-lihoa, ehun-kalamua eta lurrak nahita erretiratzea) produzitzeko hektarea bakoitzeko laguntza bat emango dute.

Espainia osorako 7.849.000 ha lehorreko lur eta 1.371.700 ha-ko sail ureztatuko azalera maximoak bermatzen dituzte.

- Landare proteazeoentzako eta gari gogorraren kalitatearengatik emandako primak

Zona tradizionalan gari gogorra landatzen duten nekazariei produkzioari erantsitako 40 €/ha-ko laguntza emango diete. Edonola ere, kalitate handiko gari-motak erabili beharko dituzte eta kasurako ezarritako hazi egiaztatuaren bidezko ereite-dosiarekin. Espainia osorako 549.000 ha-ko azalera maximoa bermatzen dute.

Halaber, laborantza proteazeoen (babak, baba txikiak eta ilar lehorrak) produktoreei, beste edozein belarkiren laborantzagatik ematen dieten 15,75 €/Tm-ko laguntzaz gain, 55,57 €/ha-ko laguntza espezifikoak (produkzioari lotua) emango diete. EBrako bermatutako azalera maximoa 1.500.000 ha-koa da.

- Haziak

Hainbat zereal, olio-landare, gramineo eta lekadunen oinarrizko hazia edo hazi frogatua produzituko duten nekazari biderkatzaileei laguntza (produkzioari lotua) emango diete arauzko baldintzetan ezarritako kopuru zehatzen arabera (22,10 €/alpapa ekotipoko hazien kintal metrikoa, 36,59 €/hainbat motatako alpapako kintal metrikoa, 30,67 €/zalke satiboko hazien kintal metrikoa, eta abar): baimendutako establezimenduarekin biderkatzeko kontratupean produzituak, ofizialki egiaztatuak, eskaera-kanpainan bilduak eta hurrengo urteko ekainaren 15a baino lehen salduak.

- Energia-laborantzak

Energia-laborantzekin ereindako azalerei 45 €/ha urteko produkzioari egokitutako laguntza emango diete. EB osorako bermatutako azalera maximoa 1.500.000 ha da. Azalera hau gaintzen badute, laguntza proportzioan murriztuko da urte horretan. Laguntza kobratzeko, nekazariaren eta transformazio-enpresaren arteko kontratua egin behar da.

Energia-laborantzako erregimenean sartzeko eskatu dituzten azalera ezingo dira produktotik kanporatuak bezala zenbatu.

- Olibadiak

Ustiategiagatiko ordainketa bakarra 2005-2006 komertzializazio-kanpainatik aplikatuko dute.

Ordainketa bakarrek eskubideak kalkulatzeko kontuan hartuko duten azalera: estatu osorako zehaztu beharko duten kalkulu komunekin protokoloaren bidez lortutako SIG olioaren hektarea-kopurua.

Erreferentziako zenbatekoa jakiteko, erreferentzia-epeko kanpaina bakoitzean laguntza jaso duten tonak eta kanpaina bakoitzeko zenbateko unitarioa biderkatuko dituzte.

Produzitzeko 1.322,50 €/tona-ko laguntza jasotzen duen egungo erregimena, 2005eko azaroaren 1era arte aplikatuko dute.

1999/2000tik 2002/2003ra komertzializatzeko kanpainen erreferentzia-epan ordaindutako produzitzeko laguntzen zenbatekoaren % 95 (0,3 ha baino gutxiagoko ustiategiaren kasuan % 100), ordainketa bakarrek erregimenari esleituko diote (banandua). Gainerakoa (% 5), hektareen arabera esleituko dute, bakoitzaren olibadiaren azalaren arabera. Hala ere, laguntzaren % 5 hori ez da nekazari bakoitzaren laguntzaren % 5a, Estatu osoko laguntzen % 5a baizik. Laguntza hauek hektarea bakoitzari linealki banatuko zaizkio.

● Tabakoa

Tabakoaren sektorean, epe orokorra (2000, 2001 eta 2002) hartuko dute erreferentzia bezala. Kalkulatzeko kontuan hartutako hektarea-kopurua, prima eman dieten erregistratutako laborantza-kontratuetan adierazitako azalaren arabera izango da.

Erreferentzia-zenbatekoan sartu beharko duten tabakoaren sektoreko zenbatekoa kalkulatu dute, ordainketarako onartutako hiru urteko kilogramoen batez bestekoa, eta kilogramo bakoitzeko emandako laguntzaren batez besteko haztatua biderkatuz, mota bakoitzeko tabako-kantitatea kontuan hartuta. Modu horretan kalkulatu dute zenbatekoaren % 40 ordainketa-eskubideen barne sartuko da eta % 60 produkzioari lotuko zaio.

Tabakoaren sektorearen banaketa bi fasetan egingo dute. Lehena 2006tik 2009 arte izango da, eta goian aipatutako % 40ri dagokio. 2010. urtetik aurrera, banantzea % 100 izango da.

BELARKIEN LABORANTZEN ADIBIDEA:

Arabian kokatutako belarkien laborantza estentsiboen ustiategi baten hipotesia:

Koadro honetan belarkien laborantzen informazioa biltzen dute (zerealak, artoa barne, olio-landareak, landare proteazeoak eta produktoreak erretiratzeakoak).

Datuak, urteen, laborantza-motaren edo erretiratze-motaren arabera antolatu eta udal-mailan banandu dituzte. Laborantzak, sailkapenaren arabera, lehorreko sailen eta sail ureztatuen artean bereizten dira.

Hartutako erreferentzia-errendimendua 2002. urtean nekazariaren laguntza-eskaeretan aplikatutako erregionalizazio-errendimendua da.

Laboreen inguruko datuak

AE	Laborea	LHren kodea	Udalerrien kodea	Udalerrien izena	L/U	2002ko errendimendua (t/ha)	Zehaztutako azalera (ha)		
							2000	2001	2002
15	Zerealak	01	035	LANTARON	L	4,4	20,85	11,58	12,85
15	Zerealak	01	044	PEÑACERRADA	L	4,4	6,23	2,88	
15	Zerealak	01	046	RIBERA ALTA	L	4,4		2,86	2,86
15	Zerealak	01	055	VALDEGOVIA	L	4,4	14,52	12,21	8,35
15	Zerealak	09	112	CONDADO DE TREVIÑO	L	4,4	46,68	37,27	37,98
15	Olio-aleak	01	035	LANTARON	L	4,4	1,06		
15	Olio-aleak	01	044	PEÑACERRADA	L	4,4		5,00	
15	Olio-aleak	01	046	RIBERA ALTA	L	4,4	2,86		
15	Olio-aleak	09	112	CONDADO DE TREVIÑO	L	4,4		14,74	18,53
15	Proteaginosak	01	035	LANTARON	L	4,4		3,63	3,75
15	Derrigorrean Lagata	01	035	LANTARON	L	4,4	0,02	6,79	0,83
15	Derrigorrean Lagata	01	044	PEÑACERRADA	L	4,4	1,65		1,18
15	Derrigorrean Lagata	01	055	VALDEGOVIA	L	4,4			6,68
15	Derrigorrean Lagata	09	112	CONDADO DE TREVIÑO	L	4,4	8,57	3,23	0,68
15	Borondatez Lagatak	01	035	LANTARON	L	4,4	0,32	0,26	0,75
GUZTIRA							102,76	100,45	94,44

Aurreko taulan oinarrituta, erreferentzia-zenbatekoa kalkulatu da. Kalkulu hau urte bakoitzerako laguntza-ildoen arabera egiten da honako formula honen bidez:

= Laborantza-azalera x zonaren batez besteko errendimendua x laguntzaren zenbatekoa 2002. urtean.

AE	Laguntza Lerroa	L/U	2002ko Errend.(t/ha)	Unitateko Zenb. (€/t)	2000		2001		2002		Zehazt. Azal. BATEZ BEST.(ha)	Oinar. Zenbat. BATEZ BEST.(€)	Banantze aren %	Azken Zenbat.(€) (1)
					Zehazt. Azal. (ha)	Oinarritzko Zenbat. (€)	Zehazt. Azal. (ha)	Oinarritzko Zenbat. (€)	Zehazt. Azal. (ha)	Oinarritzko Zenbat. (€)				
15	Zerealak	L	4,4	63,00	20,85	5.779,62	11,58	3.209,98	12,85	3.562,02	15,09	4.183,87	75	3.137,90
15	Zerealak	L	4,4	63,00	6,23	1.726,96	2,88	798,34			3,04	841,77	75	631,33
15	Zerealak	L	4,4	63,00			2,86	792,79	2,86	792,79	1,91	528,53	75	396,40
15	Zerealak	L	4,4	63,00	14,52	4.024,94	12,21	3.384,61	8,35	2.314,62	11,69	3.241,39	75	2.431,04
15	Zerealak	L	4,4	63,00	46,68	12.939,70	37,27	10.331,24	37,98	10.528,06	40,64	11.266,33	75	8.449,75
15	Olio-aleak	L	4,4	63,00	1,06	293,83					0,35	97,94	75	73,46
15	Olio-aleak	L	4,4	63,00			5,00	1.386,00			1,67	462,00	75	346,50
15	Olio-aleak	L	4,4	63,00	2,86	792,79					0,95	264,26	75	198,20
15	Olio-aleak	L	4,4	63,00			14,74	4.085,93	18,53	5.136,52	11,09	3.074,15	75	2.305,61
15	Proteaginosak	L	4,4	63,00			3,63	1.006,24	3,75	1.039,50	2,46	681,11	75	511,43
15	Borondatez Lagatakoa	L	4,4	63,00	0,32	88,70	0,26	72,07	0,75	207,90	0,44	122,89	75	92,17
GUZTIRA					92,52	25.646,54	90,43	25.067,20	85,07	23.581,41	89,33	24.765,04		18.573,79

Zereal, olio-landare, landare proteazeo eta borondatezko erretiratzean hektarea bakoitzeko zenbatekoa, zonaren errendimendua bider 63 € eginez kalkulatu da (adibidean 4,4 t/ha)

Banantzea: % 75

Derrigorrezko erretiratzearen eta borondatezko erretiratzearen arteko baturak, aitortutako erretiratzea ematen du.

Gari gogoraren gehigarriaren unitatearen zenbatekoa 285 €/ha da, erreferentzia-epean 344,5 €/ha zen bitartean. Lekadun aldeek (zalke, eru) 2000. urtean 175,02 €/ha balio zuten, 2001ean 176,6 €/ha eta 2002an 150,52 €/ha. Gizakiek jateko lekadunek (txitxirioak, dilistak) berriz 181 €/ha balio dute.

Aurreko taulan, laguntza-ildo bakoitzerako, batez besteko azalera zehatza (baliozkotua) eta batez besteko oinarriko erreferentzia-zenbatekoa ateratzen dituzte epe horretarako, eta dagokion banantzea kontuan hartuta, amaierako zenbatekoa kalkulatu dute, banandua eta doitu gabea. Taularen behealdean erreferentzia-azalera batzen dituzte, bai eta doitu gabeko guztizko zenbatekoak ere.

Gogoan izan **ordainketa bakarra** laguntza-ildo bakoitzeko erreferentzia-zenbatekoaren **banandutako zatirako erabiltzen dela**. Zereal, gari gogorraren gehigarri, olio-landare, landare proteazeo, liho eta kalamu, eta produktu borondatezko erretiratzeko lurren kasuan, % 75eko banantzea erabiltzen dute. Lekadunek eta derrigorrezko erretiratzeek, ordea, % 100eko banantzea dute.

Ikus daiteke aurreko taulan ez dela derrigorrezko erretiratzea azaltzen. Gogoratu bi eskubide arrunt mota daudela: azalera oinarritutako eskubideak (erreferentzia-epeko laguntzetarako eskubidea duen batez besteko azalera zehatzak sortuak) eta erretiratze-eskubideak (erreferentziako epean zuzeneko ordainketak jaso zituzten derrigorrezko erretiratzeko batez besteko hektarea baliozkotuek sortuak). Horregatik, aurreko taulan egindako eragiketak errepikatzen dira, baina derrigorrezko azalera mugatuak. Kasu honetan, % 100eko banantzea aplikatu dute.

AE	Laguntza Lerroa	L/U	2002ko Errend.(t/ha)	Unitateko Zenbat. €/ha,€/t	2000		2001		2002		Zehazt. Azal. BATEZ BEST. (ha)	Oinar. Zenbat. BATEZ BEST. (€)	Banantz earen %	Azken Zenbat. (€) (1)
					Zehazt. Azal. (ha)	Oinarriko Zenbat. (€)	Zehazt. Azal. (ha)	Oinarriko Zenbat. (€)	Zehazt. Azal. (ha)	Oinarriko Zenbat. (€)				
15	Derrigorrean Lagatakooa	L	4,4	63,00	0,02	5,54	6,79	1.882,19	0,83	290,08	2,55	705,94	100	705,94
15	Derrigorrean Lagatakooa	L	4,4	63,00	1,65	457,38			1,18	327,10	0,94	261,49	100	261,49
15	Derrigorrean Lagatakooa	L	4,4	63,00					6,68	1.851,70	2,23	617,23	100	617,23
15	Derrigorrean Lagatakooa	L	4,4	63,00	8,57	2.375,60	3,23	895,36	0,68	188,50	4,16	1.153,15	100	1.153,15
				GUZTIRA	10,24	2.838,52	10,02	2.777,55	9,37	2.597,38	9,88	2.737,81		2.737,81

Derrigorrezko erretiratzearen kasuan, hektarea bakoitzeko zenbatekoa, zonaren errendimendua bider 63 € eginez kalkulatu da (adibidean 4,4 tn/ha).

